

# ***Jendaurrean Erabili***

PROIEKTUA

Lehen Fasearen Txosten laburra

2017ko apirila

SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA



# Jendaurrean Erabili

## PROIEKTUA

Lehen Fasearen Txosten laburra  
2017ko apirila

### LANKIDEAK

---



### ERAKUNDE BABESLEAK

---



### LAGUNTAILEAK

---



# AURKIBIDEA

<b>1 ABIAPUNTUA</b> .....	5
<b>1.1 Aurrekariak eta eginkizun nagusia</b> .....	5
<b>1.2 Proiektuaren oinarri teoriko eta metodologikoak</b> .....	7
<b>1.2.1 Oinarri epistemologikoak</b> .....	7
a) Ekintza ez da ikerlariena .....	8
b) Proiektuan landuko eta sortuko den ezagutza, «egoerako ezagutza» (egoera jakinetan sortutako ezagutza) izango da .....	8
c) Proiektua propositiboa da, intentzionala .....	8
d) Ahalmena sortzeko apustua .....	8
e) Ezagutzea ikastea da, ikastea ekitea da .....	8
<b>1.3 Praktika Komunitatea: abiapuntua, bitartekoa eta helburua</b> .....	9
<b>1.3.1 Praktika Komunitateak</b> .....	9
a) Osaera eta egitura .....	11
b) Funtsezko ezaugarriak .....	12
c) Nola egin, eratu eta biziarazi Praktika Komunitatea .....	12
<b>1.3.2 Ikerketaren egitura modularra: ekite-ildoak</b> .....	13
a) Lehenengo ekite-ildoak: Eragite Talde Nuklearra sortzea, prestatzea eta abiaraztea .....	13
b) Prestakuntza-saioak .....	14
c) Ebaluazio-diagnostiko narratiboaren metodologia .....	14
d) Bigarren ekite-ildoak: Hedabideak: interpelazioaren bidez, lankidetzaren lortzea .....	15
e) Hirugarren ekite-ildoak: (Beste) erakunde zein eragile sozialak erakartzea eta Praktika Komunitatea antolatzea eta abiaraztea .....	15
<b>2 GARAPENA</b> .....	17
<b>2.1 Proiektuaren hastapena</b> .....	17
2.1.1 Proiektuaren talde eragilea: antolakuntza eta ikerketa .....	17
2.1.2 Talde Nuklearra: Praktika Komunitatearen hazia .....	17
<b>2.2 Lehen fasearen garapena: urrats eta jardura nagusien garapena</b> .....	18
2.2.1 Sintesia .....	18
2.2.2 Prestakuntza saioak .....	18

2.2.3 Ikerketa: diagnosiari begira .....	19
<b>2.3 Webgunearen diseinua eta lankidetz Mondragon Unibertsitatearekin .....</b>	<b>19</b>
<b>2.4 Itxiera saioa eta hurrengo fasearen hasiera .....</b>	<b>20</b>
<b>3 LEHEN FASEAREN EMAITZAK: JARDUNAK ETA LORPENAK .....</b>	<b>21</b>
<b>3.1 Helburu orokorrak .....</b>	<b>21</b>
<b>3.2 Praktika Komunitatea eratzea eta abiatzea .....</b>	<b>22</b>
<b>3.3 Lan saioak: zer ikasi dugun eta zer irakatsi diogun elkarri .....</b>	<b>23</b>
3.3.1 Adituen ekarpenak .....	23
3.3.2 Arituen ekarpenak .....	23
a) Lehen Formakuntza saioa: Komunikazio praktikak .....	23
b) Bigarren Formakuntza Saioa: berrikuntza sozialen legitimazioa .....	24
c) Hirugarren Formakuntza Saioa: komunikazio modu eta berrikuntza sozialen kudeaketa ....	26
<b>3.4 Diagnosi bidean .....</b>	<b>26</b>
<b>3.5 Narrazioak: erronka komunak eta aurrera jotzeko ildoak .....</b>	<b>27</b>
<b>3.6 Hurrengo faseari begira .....</b>	<b>30</b>
<b>4 BEGIRADA OROKOR BAT ORAIN ARTE EGINDAKOARI .....</b>	<b>33</b>

# 1 ABIAPUNTUA

## 1.1 Aurrekariak eta eginkizun nagusia

Proiektu hau aurretiaz egindako beste proiektu eta esku-hartze batzuen jarraipena da. Zehatzago esan, proiektu honen hastapena Soziolinguistika Klusterraren eskutik egindako EraLan izeneko proiektu sorta da. EraLan ikerketa-ekintza paradigmaren garatu zen, erakundeen arteko lankidetzara bultzatuz. Hiru izan ziren EraLan-en edizioak: EraLan1 [2006-2008], EraLan2 [2008-2010], EraLan3 [2011-2013]. Eta helburu komun bat izan zuten: «hizkuntza normalizaziorako planak onartuta dituzten lan munduko erakundeetan euskararen erabilera eragiten duten aldagaiak identifikatzea, eta horietan positiboki eragiteko metodologiak sortu eta inplementatzea.»<sup>1</sup>

Eralan3 proiektuaren baitan *Prentsaurrekoak eta jendaurreko ekitaldiak* gogoetagai izan zituen talde bat osatu zen. Talde hark 2012an eta 2013an landutakotik sortu zen euskararen jendaurreko erabilera modu zabalago batean aztertzeko eta lantzeko asmoa. Behar hori han definitu bazen ere, proiektu honek beti izan du berezotasun osoa, hala erabaki zelako hasieratik bertatik.

2014ko hondar hilabeteetan, Klusterrak Eduardo Apodakari, UPV/EHUko irakasle eta ikerlariari, proiektuaren diseinua egiteko eskatu zion, abiapuntu jakin batetik:

Euskarak gaurko EAeko gizartean ez duen leku bat izango badu biharko egunean, horrek eskatzen du, besteak beste, gizarte hau osatzen duten era guztietako erakunde publiko eta pribatuek beren **eguneroko jendaurreko jardunean**, euren **ohiko jarduera publikoan euskara gaur baino gehiago erabiltzea**. Baina gai honetan ere, aldatetarik ez dira automatikoak, hainbat erakundetan langile eta kide euskaldunak gero eta gehiago izan arren, eta biztanleen artean euskaraz ulertzen dutenak gehitzen joan arren.

Nabarmendu ditugun hitzetan irakur daitekeenez, proiektuari ezarri zitzaion esku-hartze eremua «*euskara jendaurrean erabiltzea*» izan zen eta haren izaera ikerkuntza-ekintza gisa definitu zen, batetik jardun hartako eragileekin lan egitea hobestea zelako eta bestetik ikerketa-etekinik lortu nahi zelako.

Eskaera horren betekizunak kontuan hartuta Eduardo Apodaka eta Jordi Morales ikerlariak<sup>2</sup> proiektu zabal bat prestatu zuten, gerora, jardunaren jardunez, egokitu beharko zena. Izan ere, proiektu-diseinu horren atal eta helburu nagusiak bere horretan egin ahal izan dira, baina batzuk neurritan behar izan dira eta egokitu jardunaren eta baliabideen mugen arabera.

Ikerketa- eta ekintza-proiektuaren helburuak, beraz, jendaurrean *euskararen erabilpena sustatzea eta areagotzea* izan behar zuen. Baina, esan bezala, halako helburua zeharka eta eragileen konpromiso zein jardunetatik heldu behar delakoan, aurreikusi zen lehendabiziko egitasmo zabal hartan eragileekin

<sup>1</sup> <http://www.sociolinguistika.org/eralan>

<sup>2</sup> UPV/EHUko Gizarte Psikologia Saileko Irakaslea eta doktoregaia, hurrenez hurren. Biak Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko INNOLAB Gizarte Aldaketa, Berrikuntza eta Konplexutasuna, Euskal Unibertsitate Sistemako Ikerketa Taldeko kideak (A maila. IT650-13). Jordi Morales doktoregaia izateaz gain, sare sozialen analista eta komunikazio aholkularia da.

lan egitea. Areago, egitasmoaren egileek pentsatu zuten eragileek asko dutela irakasteko, komunikazio jardunetan duten jakintza ez delako nolana hiko, eta euskara neurri batean edo bestean ohiko lanean erabiltzen dutenez elkarrengandik ikasiz asko hobetu eta garatu zezaketela euren jarduna.

Horregatik, proiektuaren muina euskarazko komunikazio publikoan ari diren eragileekin *Praktika Komunitate* bat osatzea izan zedin proposatu zen.

Komunitatea, berez, metodologia bat izango zen jendaurreko erabilpenean eta erabilpen haren sustatze-egitasmoetan egon daitezkeen oztupoak, trabak edota arazoak gainditzeko; nola eta parekideen arteko jakintza-trukerako eta komunikaziorako gunea eta egokiera eskainiz.<sup>3</sup>

Honela definitu zen hasierako proiektuan ikerketa-ekintzaren helburu nagusia:

Esku artean duzun ikerketa-ekintza proiektu honen **helburua, jendaurreko komunikazioan euskararen erabilera erraztu, sustatu edo eraginkorrago egiteko nahia duten erakunde eta eragileei laguntzeko eta jardun hura errazteko bitarteko eta bideak erraztea eta antolatzea da**. Horretarako, proiektua koordinatzen duen ikerketa taldeak aukeratutako erakunde publiko eta pribatuen artean elkarlana ahalbidetuko du proiektuak. Honako elkarlana, erakunde guztien artean osatuko den praktika komunitate baten bidez burutuko da, zeina esperientziak partekatzeko eta elkarrengandik ikasteko gunea aktiboa izango den.

Esku hartze edo ekintzaren helburu zehatza, beraz, berezko ibilera izan zezakeen Praktika Komunitate baten sorrera izan zen. Praktika Komunitatearen ardatza erakunde publikoek eta pribatuek jendaurrean euskara erabiliz landu, ikasi eta lortu duten jakintza izango zen. Jakintza hura komun eginez, oztupoak eta zailtasunak gainditu ez ezik, aukerak eta baliabide berriak sortuko zirelakoan.

Bestalde, hasieratik baztertu zen egoera edo gertaera batzuen deskripzio kuantitatiborik edo ebaluazio kualitatiborik egitea. Hala ere, diagnostiko moduko lanak egingo zirela aurreikusi zen, baina *euskaraz jendaurrean erabiltzeari* buruzko ezagutza eta jakintza praktikoari zegozkionak baino ez (nola egin jardun hori, nola gainditu trabak, zer baliatu, nola hobetu, nola sustatu...)

Hitz gutxitan, halako komunitate baten *leitmotiv* nagusia «zuek nola egiten duzue?» galdera da; praktika batean, kasu honetan jendaurrean euskara erabiltzen dihardutenek, elkarri egin diezaioketen galdera. Hortaz, komunitatea praktika horretarako zerbitzuak, laguntzak, adibideak, ereduak, baliabideak eta abar sortu eta eskaintzeko gunea bat izango zen.

Praktika Komunitateak izaera zabala behar zuen, praktika hartan engaiamendu handiz aritzen den Talde Nuklear baten inguruan antolatu eta hedatuko bazen ere, helburua beti izan da ohiko jardunetarako zein jardun zehatz baterako interesa eduki zezaketen horiengana iristea, komunitatearekiko lotura estu edo lasaien bidez.

<sup>3</sup> Esan beharra dago EraLan egitasmoaren lanetan Praktika Komunitatea esplizituki garatu ez bazen ere, ideia presente egon zela Eralan3 proiektuan, eta hein handian halako tankerakoak izan zirela lan horietan aritu ziren taldeak eta zehatzago Garapen Taldeak. Alde horretatik ere, jarraipen bat ematen zitzaien aurreko ekimenei.

Proiektuak, neurri handi batean, komunitate hori nola eta zertarako sortu izan du ardatz. Halaber komunitatearen funtzionamendua eta eginkizunak zein izan daitezkeen zehazten saiatu gara eta aldi berean komunitatea txikitik (Talde Nuklear batetik) abian jartzen ahalegindu gara. Hori hasierako egitasmoan planteatu zen bezala, lehendabiziko fase edo ekite-ildo bati zegokiolako. Bertan kokatzeko, ikus dezagun zein izan zen egitasmoaren marko handia. Aurrena, hala ere, ikerketa-ekintzaren oinarri epistemologiko eta teorikoak azalduko ditugu.

## 1.2 Proiektuaren oinarri teoriko eta metodologikoak

### 1.2.1 Oinarri epistemologikoak

Proiektuaren marko orokorra *Ikerketa Ekintza Parte Hartzailea* deritzon paradigma izan da (*Participatory Action-Research*, hemendik aurrera IEP). Haren filosofia eta metodo hautaketarekin bat etorrita moldatu da. IEPk ikertuaren parte-hartze aktiboa bilatzen duen ikerketa-metodoa da (Fals Borda eta Brandao, 1986)<sup>4</sup>. Askotariko teknikak erabiliz, ikerketaren gaia diren pertsonei ikerketa beraiek egiteko eta horrela euren errealitatea aldatzeko eskubidea aitortzen die. Askotan horretarako diseinatzen da berariaz: alegia, jendeak bere errealitatea asmo jakin baten arabera alda dezan. Gehienetan ikerketaren faseetan (diseinuan, ekintzetan, balorazioetan...) kontrola ematen zaio ikertuari, baina ikerlari adituaren zeregina baztertu gabe. Gure kasuan, ikerketa-taldetik eskaini nahi izan zaie eragileei euren jardunean lagungarri izan zitekeen tresna bat, eta ahal izan den neurrian, tresna haiekin diseinatu eta antolatu nahi izan dugu. Horregatik, besteak beste, proiektuaren arkitektura orokorra ez da eredu arruntekoa, ez da ikerketa-proiektu hutsa eta ez ditu izan ikerketa arruntetan ohikoak eta arauzkoak izaten diren atalak eta urratsak: ez da hipotesirik planteatu, ez da metodo edo teknikarik ekintzetatik bereizi, eta abar.

Bestalde, paradigma hau egokia da ezagutza kritiko, erreflexibo, eraldatzaile eta partekatua sortzeko. Hortaz, egokia da ezagutzaz gain, aldaketak eta berrikuntzak eragin nahi dituzten proiektuentzat (Moreno eta Espadas, 2002)<sup>5</sup>. Agerikoa denez, praktika berri edo gutxitu baten hedapenez eta hobekuntzaz aritu gara (eta horregatik, berrikuntza sozial eta kulturalaz). Ikerketa proiektu hau berrikuntza eta ezagutzaren kudeaketan sartzen da oso-osorik.

Ikerketa ekintza parte-hartzaileetan ohi den bezala, ikaskuntza kolektiborako proiektu bat abiarazi nahi izan dugu, ikaskuntza edo ikerkuntza *jakintza eta egiten-jakite* zenbait sortzeko prozesua den aldetik. Harekin batera, jakina, *egiten-jakite* horren eragilea edo subjektua sortzeko apustua egin dugu: idealean, ez ikerketak, ez «kanpo-ikerlariek» ez dute jakintza hura sortu behar, bere burua iker-tuz ikerkuntzan bertan sortzen den eragileak baizik. Eskema sinple batean esan ohi da ikerketa bide hauek ekintza-gogoeta-ekintza kiribila sortu behar dutela, betiere, talde abiarazleaz harago doan kiribil moduko mugimendu hazkor eta harkor batean (Villasante, Montañes eta Martí, 2002)<sup>6</sup>.

Horrek denak baditu mugak, baina prozesuan ezarian-ezarian aztertu eta gainditu behar dira. Ekintza

4 Fals Borda, O. & Brandao, C. (1986). *Investigación participativa*. Montevideo: Instituto del Hombre.

5 Moreno Pestaña & Espadas Alcázar (2002). *Diccionario crítico de ciencias sociales, Terminología Científico Social*. Madrid: UCM.

6 Villasante, T. R.; Montañes, M. & Martí, J. M. (koord) (2002). *La investigación social participativa*. V. 1. *Construyendo ciudadanía*. Barcelona: El Viejo Topo.

gogoetatik eta gogoeta ekintzatik sortu behar direnez gero, ezin da guztiz lineala eta kausa-efektu lotura itxi batez ikerketa-ekintzaren diseinua eta gauzapena egin. Horrenbestez, proiektuak irekia behar du, ezinbestez. Hasierako diseinua xehetasun handiz egin bazen ere, arian-arian agertuko ziren beharrei egokitzeko asmoz landu zen. Azken finean, ikerketa proiektuaren eustarria inplikatuena parte-hartze zuzena izan da, eta haien protagonismo aktiboa.

Horren harira esan behar da lehendabiziko oinarri epistemologikoa «eragiletasun» edo «subjektutasunari» dagokiola: *agentzia edo eragintza* (hots, norberaren eta besteren portaerak sortzeko, bideratzeko, baldintzatzeko... ahalmena) ez da inoiz subjektu baten ezaugarri propioa eta barnekoa, subjektuak harremanetan lortzen edo bete behar dituen posizioa baizik, edo zehatzago esan, posizio horiek paratzen dituzten harremanena. Hura da, besteak beste, Latourren *Sare Aktore Teoriak* zaharberitu duen irakaspena (Latour, 2005)<sup>7</sup>. Oso kontuan hartu dugu, beste honako oinarri hauek bezala:

**a) Ekintza ez da ikerlariena**

Ikerketari dagokiokeen jakintza edo ezagutza kanpo-errealitate baten deskripzio hutsa ez den era berean, ekintza ez da (kanpo)ikerlariaren eskutik etorriko den eraldaketa.

**b) Proiektuan landuko eta sortuko den ezagutza, «egoerako ezagutza» (egoera jakinetan sortutako ezagutza) izango da**

Ezagutza orok testuinguru batean du zentzurik, jakintza oro praktika jakin batzuei dagokie. Hau da, Donna Harawayrekin bat eginez uste dugu ez dela posible Zientzia Modernoak erdietsi nahi izan duen ezagutza unibertsal eta egoera zehatzez kanpokoa, edo bestela esanda, ezagutza beti dela egoerari lotua.

**c) Proiektua propositiboa da, intentzionala**

Proiektu honetan ikasketa (kolektibo) bat bultzatu nahi da: praktika jakin batean, egiten ez da-kiguna egiten, hain zuzen. Hemen asmo argia dago: erakunde publiko eta pribatuek jendaurrean euskara gehiago erabil dezatela. Asmo hori burutzen ikasi behar da, orain arte egiten guztiz asmatu ez delako, gutxi egin delako, edo ez delako egin.

**d) Ahalmena sortzeko apustua**

Ikerketa-ekintza proiektuak eragite-ahalmena izango duen sarea eraikitzea proposatzen du. Uste dugu halako Praktika Komunitate bat izateak ere badukeela eragiteko ahalmenik. Castells soziologoak (2010)<sup>8</sup> esan duenez, sarea egituratzeak berak sortzen du eragimena. Sare eta komunitateetan partaideen eta jardueren kopurua da eragimen-iturria, hau da, sare batek izango dituen bizitasunak eta hedapenak emango diote hainbesteko ahalmen eta eskumena. Erronka, beraz, komunitateari bizitasuna ematea izango da.

**e) Ezagutzea ikastea da, ikastea ekitea da**

Jakintza ekintzaren emaitza da. Zer esanik ez, jakintza sozialaren kasuan, elkarrekintzan sortzen baita sozialari buruz eduki dezakegun jakintza, eta hau guztiz praktikoa izaten da (erabiltzeko eta erabilia).

<sup>7</sup> Latour, Bruno (2005). *Reassembling the Social. An Introduction to Actor–Network–Theory*. Oxford: Oxford University Press.w

<sup>8</sup> Castells, M. (2010). *Communal Heavens: Identity and Meaning in the Network Society. The Power of Identity*, 5–70, 2nd Edition. Oxford: Wiley–Blackwell.w



Baina, berriro diogu, ezagutza edo *egiten-jakite* bat bainoago, ikerketa-ekintzak sorrarazi nahi izan du sarean ikasi, bere burua ahaldundu eta bere jarduna, eta ondorioz errealitatea ere, eraldatuko duen komunitate ireki eta erreferentzial bat.

### 1.3 Praktika Komunitatea: abiapuntua, bitartekoa eta helburua

Euskara (ere) jendaurrean erabiltzen duten eragileak mota askotakoak dira zentzu guztietan. Praktika komunitatean nor arituko zen pentsatzen hasi ginenean, lau arloko eragileak hartu genituen kontuan:

- Erakundeak, eremu publikoko erakundeak: udalak, aldundiak, gobernuak, partzuergoak, enpresa publikoak, organismo publikoak, eta abar.
- Elkarte eta eragile sozialak: edozein motatako elkarte sozialak, hots, irabazi asmorik gabekoak edo haiekin estuki lan egiten dutenak.
- Enpresak eta enpresa-elkarteak: irabazi asmodunak, eta euren arteko elkarte, talde, eta abar.
- Hedabideak: komunikazio, informazio eta hedatze publikoa jardun nagusi dutenak. Beste sailetan egon badaitezke ere, jardunaren arabera sailkatu nahian, bereizi doaz.<sup>9</sup>

Kasu guztietan ditugu jendaurreko komunikazioan hizkuntza bat edo beste erabiltzen duten eragileak eta gehienetan guztiek dute jendaurrean erakutsi nahi duten aurpegi edo izaera bat definiturik, eta aldi berean hura nori nahi dioten erakutsi ondo zehazturik.

Goiko sailkapenean jardunaren ezaugarri nagusiak baino ez dira ageri. izan ere, proiektuaren hasierako diseinuan ez zen aurreikusi mugarik jarduera, sektorea, tamaina edota komunikazio-beharrei dagokienez. Horrela egin: berdin har dezakete parte erreferentzialtasun handiko eragileek (esaterako: futbol talde handiek, merkataritza-guneek, egunkari salduenak, hezkuntza-sareek, aldundiek, enpresari-elkarteek, sindikatuek...) edota publiko txikiagoak dituztenek (adibidez: denda edo enpresa txikiek, udalek, tokiko hedabideek, herri-elkarteek, aisialdiko elkarteek, kirol taldeek...)

Jakina, euskararekiko konpromisoa ere ez zen eta ez da komunitatean sartzeko edo ez sartzeko inongo aurrebaldintza. Praktika Komunitatearen eraketan eta kasu batzuetan konpromiso argiko eragileak lehenetsi badira metodo kontuengatik izan da, baina helburua konpromiso txikiena eta ahalegin txikiena ere legitimatzea eta laguntzea da. Hori dena, hala ere, aurrerago zehaztuko dugu. Orain, praktika komunitatea zer den azaldu behar dugu.

#### 1.3.1 Praktika Komunitateak

*Praktika Komunitate* kontzeptua Xerox enpresaren PARC (*Palo Alto Research Center*) delakoan sortu zen, fotokopiagailuak konpontzen ziharduten teknikarien inguruan egindako ikerketa baten baitan

<sup>9</sup> Euskarazko komunikazio publikoan, hedabideek erdiguneko eginkizuna dute. Askotan, besteek euren jardunean euskara (ere) erabili nahi dutenean aurrez aurre dituzten "solaskideak" ez dira zuzen-zuzenean xede-solaskideak, hedabideak baizik. Hala ere, hedabideak *artekari* gisa agertzen badira, maiz mezua zehaztean eta igortzean zinezko *eragileak* dira.

(Brown eta Duguid, 1991<sup>10</sup>; Lave eta Wenger, 1991<sup>11</sup>). Gutxi asko, ikerketa horrek agerian utzi zuen teknikari horiek euren arteko harreman informaletan elkarrengandik ikasi eta elkarri irakasten ziotela, hau da, ezagutza eta jakintza ari zirela bai sortzen, bai trukatzeko, eta hori dena euren praktika (lan-praktika tekniko) jakingai zutela. Ikerketak, beraz, lan-munduan eta ikaskuntza-prozesu guztietan oso agerikoa den zerbait erakutsi zuen: jauzi handiegia dagoela eguneroko *egiten jakite (praktiko)tik* eskuliburuetan edota ikaskuntza eta prestakuntza formaleko saioetan lantzen dena.

Ikerketa haren ondotik, Wengerrek (1998a)<sup>12</sup> zehaztu zuen «Praktika Komunitateen Teoria» (PKT he-mendik aurrera). Horren arabera, arazo konponbideak harreman informaletan sortzen dira eta haietan partekatzen eta hedatzen dira. Ideia horietan oinarrituta, Wengerrek «ikaskuntza kokatuaren teoria» aurkeztu zuen. Ikaskuntza praktiken bidez egin beharreko prozesua da, eta praktikan arizaleek ezinbestez ikasten dute, betiere zehaztapen hauekin:

- **Ikaskuntza fenomeno soziala da.** Praktika berririk ikasteko besteen beharra dugu, elkarrekintzan ikasten da usu, baina, oro har, praktika jakin bat praktikatzeko dutenen komunitatean sartuz, parte hartuz eta hango moduetan trebatuz ikasten dugu. Funtsezkoa da, beraz, dakienarengandik ikastea, baita elkarrekin jakintza berriak sortzea.
- **Ikaskuntza egoera jakin batean kokatutako praktika da,** alegia, inguru eta egoera jakin batean sortzen da, maiz, arazo zehatzei loturik. Ikaskuntza ez da praktikatik landa egiten den gogoeta edo hausnarketa, egoeran bertan esku hartuz ikasi ohi da. Praktikan jardunez ikasten da praktika egiten.
- **Ezagutzan beti izaten dira alderdi esplizitua (diskurtsiboa) eta inplizitua (praktiko hutsa);** hau da, azaltzen dakiguna eta egiten dakiguna ez dira bat etortzen eta azkena aurrea baino handiago izan ohi da. Praktika Komunitatean gauzak batera egiten, nola egin erakusten edota haien gainean eztabaidatzen, ezagutza tazitua agerian jarri eta partekatu ahal da.

Horrenbestez, *Praktika Komunitatea* praktika komun baten inguruan ehuntzen den sarea trinkotzea da. Berez sortzen omen dira praktika berean ari direnek elkartzeko aukera dutenean, oso helburu zehatzak eduki ohi dituzte (arazoak konpontzeko amarruak, konponbide berezi edo berriak, eta abar) baina horiekin batera parekoen arteko harremanak ere josten eta indartzen dira. Halaber, praktika komunak dituztenen arteko harremanetan berrikuntza, aurreikuspena eta gogoeta prospektiboa landu daitezke.

Berezko dituzten eginkizunak honako hauek izan ohi dira: elkarri lagundu eta elkar bultzatzea, praktika onak hedatzea, ezagutza korpus bat eratzea eta partekatzea, berritzea... Hori dena, egite praktikoari loturik. Harreman sare horietan, beraz, agerian jartzen da ezagutzaren partekatze eta trukatzeko informala, eta nola handitzen eta berritzen den prozesu horietan, horrez gain, aditu eta ez-aditu artean konfiantza giroa sortzen dute eta horrela ere identitate-sentimendu bat jaio liteke.

10 Brown, J. S. & Duguid, P. (1991). Organizational learning and Communities of Practice: toward a unified view of working, learning and innovation. *Organization Science*, 2, 1, 40-57.

11 Lave, J. & Wenger, E. (1991). *Situated learning: legitimate peripheral participation*. Cambridge: University Press.

12 Wenger, E. (1998a). *Communities of Practice: learning, meaning and identity*. Cambridge: University Press.

Ikusten denez, Praktika Komunitatea ekintza bidezko ikaskuntzatik hurbil dago eta halaber *action learning* metodoetan proposatzen diren ataza- eta ikaskuntza-taldeetatik (Revans, 1980)<sup>13</sup>. Talde horiek komunitate handiago batean integratzen dira Praktika Komunitateen eremuan.


#### a) Osaera eta egitura

Praktika Komunitateetan geruzak edo parte-hartze mailak egon ohi dira. Komunitate trinkoetan erdiguneko nukleoarekin batera bazterreko geruzak egoten dira, alegia, aritzaile trebatuek (*practitioners*) parte-hartze handiko nukleo bat osatzen dute eta inguruko periferian parte-hartze gutxi duten hasiberriak egoten dira. Ikerlariek guztiz legitimo eta onuragarritzat jotzen dute periferiaren parte-hartze txiki hori (Lave eta Wenger, 1991)<sup>14</sup>, batetik kanpotik erdigunera doan ikaste-bidaiaren hasiera izan daitekeelako, eta bestetik jakintza tasa handitzen dutelako.

Oro har, hiru maila topatuko ditugu Praktika Komunitateetan:

- **Erdiguneko nukleoko aritzaile engaiatuak**, parte-hartze handiko kideak, bizi-arazleak eta sustatzaileak.
- **Nukleo inguruko aritzaileak**, nukleotik proposatzen diren ekitaldi eta ekimenetan parte hartzen duten kideak.
- **Periferia**, aktiboki parte hartzen ez duten interesatuak, modu pasiboan edo segimendu bat egiten parte hartzen dutenak. Komunitatea on-line antolatzen bada, azken geruza handiena izaten da, diferentzia handiz.

#### 1 IRUDIA: PRAKTIKA KOMUNITATEAREN GERUZAK



*Egileek paratutako irudia, Lave&Wengerren lanean oinarriturik*

<sup>13</sup> Revans, R. (1980). *Action Learning: New Techniques for Management*. London: Blond & Briggs.

<sup>14</sup> Lave, J. & Wenger, E. (1991). *Situated learning: legitimate peripheral participation*. Cambridge: University Press.

**b) Funtsezko ezaugarriak**

Komunitatea edo sarea izanda ere, Praktika Komunitateak ezaugarri hauek eduki beharko ditu:

- **Eginkizun komuna (*joint enterprise*):** praktika komun nagusia, hartatik eratorri daitezkeen interes eta jakingai komunak, arazo eta erronka komunak edo antzekoak. Ez da behin betiko erabakita edo emanda egon daitekeen kontua, dinamikoa eta aldakorra izan daiteke eta. Komunitatea biziartzeko eta parte-hartzeko motibazioa pizteko beharrezkoa da «xede komun» bat (edo sorta bat) ezartzea, baina horrek ez du komunitatea mugatu behar.
- **Elkarrenganako engaiamendua (*mutual engagement*):** ahal delarik, parte-hartze mailak definitu behar dira eta horren arabera konpromisoak zehaztu. Oro har, egitura irekia behar du izan, eta nagusitu behar da elkarri laguntzeko konpromisoa eta elkarrengandik ikasteko nahia. Konfiantza, beraz, elkarrekikotasunean eta irekitasunean oinarritu behar da.
- **Errepertorio partekatua (*shared repertoire*):** elkarrekin egin eta sortzen dutena; mota orotako baliabideak: prozedurak, hizkuntza propioa, ideiak, agiriak, lanabesak, sinboloak, eta abar. Nabarmentzekoak dira arazo eta erronkei erantzuteko sor daitezkeenak, baina garrantzitsuenak *jardunari buruzko zentzuak eta esanahiak* izango dira.

Azken eginkizun horri dagokionez, ikerketa honek narrazioak eratzea proposatzen du, jardunaren zentzua eta balioa sortu, handitu eta hedatze aldera ez ezik, ezagutza bera sortzeko ere bai.

**c) Nola egin, eratu eta bizi Praktika Komunitatea**

Wenger eta lankideek (Wenger et al., 2002)<sup>15</sup> Praktika Komunitate bat eratzeko urrats edo fase idealak zein izan daitezkeen aztertu zituzten. Idealak diren aldetik, kontuz hartu beharrekoak dira. Modu zabal batean hartzekoak dira. Proiektuaren garapenean ikasi baitugu aurreikusi ahal zen bezala, urrats hauek ez direla inoiz linealak, behin gaindituta bermatuta geratzen direnak, eta aurrera egin ahala eta ondorioz testuingurua bera aldatu ahala, helburu eta behar berriak agertuz joaten direla.

Wenger eta lankideek aurkezten dituzten urratsak honako hauek dira:

- **Gaiak (beharrak) identifikatzea.** Praktika da beti lotunea, hau da, berez sortzen diren komunitate informaletan praktikaren beharrek biltzen dituzte aritzaileak. Formalizatu nahi den komunitatean, berriz, praktika emanda badago ere, helburu jakinak ere egon daitezke eta ezer egin baino lehenago, komeni da helburu horiez landa, aritzaileen beharrak entzutea eta ezagutzea. Lan hori nukleoak egin lezake edo komunitateko sustatzaileak.
- **Sustatzailea edo animatzailea hautatzea.** Praktika Komunitatean sustatzaile bat behar da. Berak sustatu, animatu, biziartzeko du komunitatea, betiere, proposamen eta ekimenak eskainiz eta konpartituz, inor ezertan behartu barik. Sustatzailea ez da kanpoko aditu edo begirale bat, komunitateko kide onartu eta errespetatua baizik. Praktika Komunitate birtualetan moderatzailearena egin dezake, baina ez da *community manager* delakoaren eginkizunetara mugatzen.

<sup>15</sup> Wenger, E.; McDermott, R. & Snyder, W. (2002). *Cultivating Communities of Practice*. Harvard: Business School Press.

- **Parte-hartze mailak antolatzea.** Arestian aipatu geruzak edo mailak antolatu behar dira: nukleoa nola indartuko eta trinkotu den, inguruko aritzaileei zer eskainiko zaien, periferiari zer emango zaion eta abar. Oso garrantzitsua da aintzat hartzea ez sustatzaileak, ez nukleok ere, ez dutela komunitate osoaren bizitza ezagutuko, ezin dute dena ikusi eta jakin: harreman asko azpitaldeetara edo pertsona artekora mugatuko dira eta buruz buruko truke pribatuak izan daitezke. Berez hori dena ez da txarra, baina bideak zabaldu behar dira pribatutik eremu osora heda daitezen, eta saihesti behar dira talde itxiak, nolabait, ezagutza pribatizatzerara eta kapitalizatzerara jotzen dutenak.

### 1.3.2 Ikerketaren egitura modularra: ekite-ildoak

Hiru ekite-ildo planteatu ziren, kontuan harturik parte hartuko zutenek honetara eman zezaketen denbora zein ahalegina mugatua izan zela prozesu osoaren erritmoa eta lan karga eramangarria izan zedin. Halaber, egitura modularra eman zitzaion ekite-ildoei, eta horrenbestez, bakoitzak bere kabuz egin zezakeen aurrera.

<b>LEHENENGO EKITE-ILDOA</b>	Eragite-Talde Nuklearra sortzea, prestatzea eta abiaraztea	ABIARAZLEA ABIARAZTEA
<b>BIGARREN EKITE-ILDOA</b>	Hedabideei interpelatzea eta haien lankidetzaren lortzea	INTERPELAZIOTIK LANKIDETZARA
<b>HIRUGARREN EKITE-ILDOA</b>	(Beste) erakunde zein eragile sozialak erakartzea eta Praktika Komunitatea antolatzea eta abiaraztea	SORKUNTZA ETA HEDAKUNTZARAKO SARE ERAGILEA

#### a) Lehenengo ekite-ildoak: Eragite Talde Nuklearra sortzea, prestatzea eta abiaraztea

Lehendabiziko ekite-ildoak Talde Nuklearra sortzea, hainbat gai eta gaitasunetan prestatzea eta abian jartzea zen. Talde hau izango da ikerketaren eragile nagusia eta Praktika Komunitatearen abiarazlea. Berak egingo du egoeraren ebaluazio-diagnostikoa parte-hartzean oinarritzen den metodologia erabiliz: ekoizpen narratiboak. Talde Nuklearra diogu, tamaina handikoa ez izan arren, berak hartu beharko baitu bere gain ikerketa-ekintzaren alderdirik garrantzitsuenak.

Talde honekin egingo dute lan ikerlariek. Eta alde horretatik ere, lanak eta egitasmoak ondo gartzeko, behar-beharrezkoa da Klusterreko koordinatzaile bat han izatea. Harez gain, taldean honako profileko jendea bildu beharko litzateke:

- Erakunde publikoetako komunikazio-arduradunak
- Bozeramaile, politiko edota ordezkari gisa jendaurrean (eta hedabideen bitartez) jarduten dutenak edo haien komunikazio-arduradunak
- Enpresa pribatu eta elkarte pribatuetako komunikazio-arduradunak edo euskara-teknikariak
- Arlo sozialeko elkarte, talde, fundazio eta mota bereko antolakundeetako komunikazio-arduradunak zein ordezkari edota eledun aritzen direnak

- Kazetariak eta komunikazio munduko adituak, bereziki jendaurrean euskaraz aritzearen inguruko esperientzia dutenak

Talde honekin praktika komunitateak nolakoa behar duen definituko da praktikaren bidez. Hartarako, bi eginkizun nagusi planteatzen dira: prestakuntza-saioak eta diagnostiko multzoa.

#### **b) Prestakuntza-saioak**

Funtsean, Talde Nuklearreko partaideek ikerketa-ekintza proiektu honen oinarri teorikoak bereganatzeko eta kasuan-kasuan gaitasun praktikoetan trebatzeko izango dira saio hauek. Praktika komunitateari edukia eta zeregina ematen hasteko bidea ere izango dira eta horrela joango gara egiaztatzen zein dinamika izan daitekeen onuragarria. Horrez gain, saio horien bidez taldearen barneko kohesioa eta lan-giro onuragarria sortu eta bermatu behar da.

Horrenbestez, gutxienez, honako arlo hauetan jorratuko ditugu prestakuntzaren oinarri horiek: Berrikuntza soziokulturala, praktika berrien edo anomaloen legitimazioa eta komunikazio-praktikak. Izan ere, arlo horiek dira proiektu honen zutarrak teoriko eta ikertze-eremu nagusiak. Baina arloka ikusteaz landa, guztiak artikulatu beharko dira ikuspegi eta interpretaziorako baliabide integratuak lortze aldera. Bistan da, bestalde, guztiak elkarri loturik daudela: jendaurrean euskaraz (ere) jardutea praktika berri/anomalo/gutxitu/gutxietsiak hedatzea den aldetik halako praktiken legitimazioari arreta eman beharko diogu, bai eta berrikuntza sozialari ere; jardute hura komunikazio-jarduna denez halako jardunak ezagutu eta analizatzeko tresnak beharko dira. Eta, azkenik, haietan eragiteko modurik, baliabiderik eta eragilerik sorrarazi nahiko genuke Praktika Komunitatearen bitartez.

#### **c) Ebaluazio-diagnostiko narratiboaren metodologia**

Diagnostikoak praktika baten inguruan dauden trabak eta eragozpenak ulertu nahi ditu, horiek gainditzeko asmoa eta premia duenari laguntza eskaintzeko eta, haien borondatearen neurrian, eskatzeko ere bai.

Horrenbestez, ikerketa-proiektu honetan ingurua da gehien interesatzen zaiguna. Ingurua (eragile) askoren arteko harreman multzoa da, eta bertako posizio erlatiboetan hartzen dituzte eragile horiek dituzten indarrak edo ahuleziak. Posizio horiek dinamikoak izan ohi dira, aldatuz doaz, eta haietan jardun behar dutenek badakite (partzialki) aldaketa horien kontu ematen eta gorabehera horiek nola bizi dituzten azaltzen, euren bizipenak dira eta. Baina ez gara ikertuen *ahots* huts eta ustez oso batekin konformatuko. Arituek euren *ahotsa* elkarrizketan jarriko dute ikerlarien *ahotsekin* batera.

Hori bera da *Ekoizpen Narratiboak* (ENak) metodologiak eskaintzen diguna. Izan ere, ezagutza soziala da, askoren artekoa, partziala, negoziatu beharrekoa eta elkarrekintzazko posizioetan sortua eta landua. Horrela, bada, metodologia objektibistak (ezagutza unibertuala lortzen omen dutenak) eta diskurtsiboak (ezagutza erlatiboa eta subjektibora mugatzen omen direnak) gainditu eta objektibismo eta erlatibismo hutsetatik alde egiteko proposamena egiten digu metodologia honek. Emaitza berezko narrazioa da, aldaketarako tresna izan dadin egiten dena, ez erreala-*ren* kopia hutsa. Horregatik ere, ENetan gertaerak baino zentzuak hartuko dira kontuan, ezagutza gordinak baino sentimenduak, deskripzioak baino interpretazioak.

Ebaluazio-diagnostikoa egiteko erabilgarria da elkarrizketa den aldetik, jakintza eta zuzeneko ezagutzak batzen direlako batetik, eta tresna metodologiko edo kontrasterako eta eztabaidarako onuragarriak diren jakintza adituak bestetik.

Oso labur esan, ikerlariak informatzaileen *ekoizpen diskurtsiboak* jasoko dituzte (euren kontuak, euren emanak) elkarrizketen bidez. Testu bihurtuko dituzte eta testuok informatzaileei emango dizkiete osatzeko, zehazteko edo zuzentzeko. Testu zuzendua ikerlarien eskuetara itzultzen da bigarren analisi-interpretazio bat egiteko. Horrela jarraituko dute testua guztien ustez osatuta egon arte. Testua ez da inorena, baina guztiena da. Elkarrizketa eta negoziazio baten fruitua da. Eta, esan bezala, ikerketarako berariaz egindako *ekoizpen* bat da. Tresna bat da eta guk hala erabili nahi dugu. Ondorioz, diagnostikoa ez da izango egoeraren azalpen objektibista bat, baizik eta bizipenen kontara ebaluatibo bat. Egoeren interpretazio negoziatu eta sozialak bildu nahi ditugu eta egoera horiek eraldatzeko tresna gisa erabili.

**d) Bigarren ekite-ildoak: Hedabideak: interpelazioaren bidez, lankidetzaren lortzea**

Ekite-ildo honen helburua hedabideak interpelatzea da, alegia, ekimen hauetan solaskide eta erantzunkide direla ohartaraztea eta lankide bihurtzea. Hasiera batean, pentsatu zen lehen bi ekite-ildoak batera egiterik izango genuela, baina ekinak erakutsi zigun ezetz. Horrenbestez, aukera ikusten denean jarriko da martxan, eta interpelaziotik lankidetzara pasatzea izango da xedea. Izan ere, interpelazio kontzeptutik planteatzen bada ere, eta hura parte honen helburu nagusia bada ere, hedabideetako iritziak, ikuspegiak eta jarrerak jasotzea eta ezagutzea dira ildo honen eginkizunak. Lankidetzaren izango da abiapuntua eta azken helburua: hasierako lankidetzaren diagnostikoa egitekoa, azkenekoa egoera eraldatzekoa.

**e) Hirugarren ekite-ildoak: (Beste) erakunde zein eragile sozialak erakartzea eta Praktika Komunitatea antolatzea eta abiaraztea**

Hirugarren ekite-ildo honen helburua Praktika Komunitatea eratzea, abian jartzea eta hedatzea izan da. Esan bezala, komunitatea metodologia bezala proposatzen da proiektuan: bai interesaturik egon daitezkeen erakunde eta eragileak erakartzeko, bai jardunari dagozkion ezagutzak, esperientziak eta *egiten jakitea* partekatzeko, handitzeko eta hedatzeko. Halako komunitate batean borondatez eta konpromiso maila malguekin hartzen da parte. Xedea eta eginkizuna elkarren laguntza da. Praktika Komunitatea, hortaz, ezagutza eta jakintza hedatzeko, elkar ahalduntzeko eta elkar motibatuzeko proposatu da. Oro har esango genuke Praktika Komunitateak ahotsa behar duela izan, ez soilik jendaurrean euskara erabiltzeko arazo xehe eta praktikoetan, baita euskararen sustapen joera eta ekimen zabaletan ere.

Ikerketa-ekintza honetan proposatu dena ez da, zorrozki esan, berezko Praktika Komunitate baten lanketa, ez delako berez sortu egoera edo topaketa informaletan. Hemen Praktika Komunitatea berariaz ezarri da, eta gainera helburu (zabal) batekin. Alde horretatik, proposatu da Praktika Komunitate trinko baten inguruan eratutako sarea. Bihotzean ikaskuntza-taldea du, ondoan Praktika Komunitatea eta ingurura zabaldua praktika-sarea.

Talde Nuklearra da Praktika Komunitatearen ernamuina. Horrez gain, ikaskuntza-taldeak abiarazlearena egingo zuela aurreikusi genuen. Talde Nuklearretik Praktika Komunitatea abian jartzeko hainbat lan egin behar dira, honakoak proiektuan bertan aurreikusi zirenak:

- Kudeatzaile bat (sustatzaile eta animatzailea) hautatzea eta haren eginbeharrak zehaztea.
- Euskarri informatikoa zabaldu eta antolatzea.
- Eragileak komunitatera erakartzeko irizpideak ezartzea.

Halaber, proiektuan aurreratu nahi izan zen zein izan zitekeen funtzionamendu orokorra, *logika bikoitza* azaldu zen bertan:

Batetik, *eguneroko eginbeharrei* erantzuteko baliabideak eman beharko ditu (edo aholkuak eskatzeko eta esperientziak trukatzeko aukerak). Eginkizun honetarako ezinbesteko laguntza izango dira Internet eta sareetako euskarriak. Gaur egun oso arruntak dira halako komunitate birtualak.

Bestetik, berriz, *ekitaldi eta jardunaldi berezien* bidez fisikoki elkarrekin jarduteko uneak antolatu beharko dira eta oso aktiboak ez direnei aukera eman beharko zaie erreferentzia zabalagoa izan dezaten. Beraz, noizbehinkako mintegi, jardunaldi, topaketak eta abar aurreikusi behar dira; ahal dela, beharretatik sortuak.



## 2 GARAPENA

### 2.1 Proiektuaren hastapena

#### 2.1.1 Proiektuaren talde eragilea: antolakuntza eta ikerketa

Talde Eragilearen egitekoa izan da proiektua zuzentzea, dinamizatzea eta kudeatzea, eta lau kidek osatu dugu: Eduardo Apodaka aritu da proiektuan zuzendari gisa eta Idurre Eskisabelekin osatu du ikertzaile taldea. Eduardo Apodaka UPV/EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Metodologia Saileko irakasle eta ikertzailea da, eta Idurre Eskisabel UPV/EHUko Kazetaritza II Sailekoa. Klusterreko ordezkari, berriz, Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra) eta Uxo Anduaga (Soziolinguistika Klusterra) aritu dira talde eragilean.

Talde hau 2015eko maiatzean osatu zen, eta segituan ekin zien proiektuko lehen ekite-ildoan abian jartzeko beharrezko ziren prestaketa eta egokitzapen lanei. Hasteko, egitasmoaren definizioa findu zuen, material berriak arakatzuz zein abiaburuko proposamenak doitzuz. Bi ildotan egin zituen egokitzapen nagusiak: batetik, iraunkortasun filosofia aintzatetsita. Hau da, esku artean ziren baliabideen eta egitasmoak eskatuko zuten lanaren arteko erkaketa egin zen, hain zuzen ere, ikertzaileentzat zein parte hartuko zuten eragileentzat eramangarria izan zedin ziurtatu eta hartara proiektuak denboran irauteko.

Beste egokitzapen nagusia, hasiera-hasierako helburu nagusiaren formulazioan egin zen. Izan ere, jendaurreko komunikazioan euskararen erabilera «areagotzea» aipatzen zen xede abiaburuan, eta horren ordeztan, jendaurrean euskaraz egiten duenari aholkularitza, laguntza, prestakuntza eta baliabideak eskaintzea jarri zen helburu. Izan ere, pentsatu zen «erabileraren areagotze» horrek txarrerako izan zitezkeen konnotazioak jaso zitzaizkela, hala nola, zamarena edota nolabaiteko nahi eta ezinarena.

#### 2.1.2 Talde Nuklearra: Praktika Komunitatearen hazia

Proiektuak 2016ko ekainera bitartean aurreikusiriko hiru ekite-ildo edo faseetatik lehena 2015eko azarotik 2016ko ekainera bitartean eraman zen aurrera, eta Talde Nuklearra izan zen horren ardatza. Bederatzi erakunde eta enpresa ditu kide, edo beste era batera esanda, bederatzi dira proiektuari hasieratik ekin dioten erakundeak eta egitasmoaren ernamuin izan direnak. Honakoak: Adeg, AEK, Athletic Club Bilbao, EITB, ELA, Getxoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Guggenheim Bilbao Museoa, eta UPV/EHU.



Hainbat ezaugarri hartu ziren kontuan Talde Nuklear horretako kideak bilatzeko –hala nola, erreferentzialtasuna edo sare zabal bateko erdigune izatea, sektorea edo jarduera arloa, izaera publikoa eta pribatua, jardueraren lurraldea...-. Marrazki hori kontuan hartuta, irailtik aurrera hainbat erakunderi aurkeztu zitzairen proiektua eta parte hartzeko gonbita egin. Talde Nuklearra osatzeko erakundeen kopuruak txikia behar zuen, eta, horrenbestez, hautaketa ez zen erraza izan.

Arestian azaldu bezala, 2015ko urrian osatu zenetik Talde Nuklearra izan da egitasmoaren ardatza. Horrenbestez, bederatzi erakundeetako ordezkariak hainbat jardueratan parte hartu dute, gaingiroki azalduta, komunikazioarekin zerikusia izan zuten hiru prestakuntza saiotan, eta ebaluazio-diagnostikorako narrazioak osatzeko elkarrizketa dinamiketan.

## 2.2 Lehen fasearen garapena: urrats eta jarduera nagusien garapena

### 2.2.1 Sintesia

Aurreneko fasearen garapenean hiru lan egin ziren aldi berean: Praktika Komunitatearen Talde Nuklearra eratzea, hura osatzen zuten erakundeetako ordezkariak prestakuntza ematea, eta ikerketa-ekintzaren diagnostikoa. Zehazki, 2015eko azarotik 2016ko ekainera bitarte bost saio egin ziren Talde Nuklearreko kide guztiekin (hiru prestakuntza saio gehi hasiera eta itxiera ekitaldiak), eta horien bidez, taldea bera osatzeko helburua eta prestakuntza ematearena bete ziren. Halaber, epe horretan bakarka sakoneko elkarrizketak egin ziren erakunde guztiekin hirugarren helburua, diagnostikoa, osatzeko.

Baina, lehen ekite-ildoak ez zen hiru zutoin nagusi horietara mugatu, baizik eta bestelako lan osagarriak ere egin behar izan ziren. Esaterako, laster ikusi zen bigarren ekite-ildoak esan nahi zuen zabalak –hots, egitaspora beste erakunde multzo zabal bat ekartzea- ezin zela utzi –ez hutsean behintzat- Talde Nuklearreko erakundeetako ordezkarien esku, baizik eta Talde Eragileak izan behar-ko zuela hein handi batean haria. Horrenbestez, lehen ekite-ildoak abian zela bigarren ekite-ildorako zumeak ere jarri ziren, hala nola, prestakuntza saioen ostean ekainean egin zen itxiera-ekitaldiaren edota irailean egin zen proiektuaren aurkezpen publikoaren prestakuntzaren bidez. Beste lan osagarri bat Praktika Komunitatea mamitzeko espazioa izango den webgunea abian jartzea izan zen.

### 2.2.2 Prestakuntza saioak

Prestakuntza saioak lehen faseko atal inportantea izan ziren, kideei lanabesak eskaintzeaz gain haien arteko eta, horrenbestez, Praktika Komunitateko harremanak ehuntzeko. Funtsean, Talde Nuklearreko partaideek ikerketa-ekintza proiektu honen oinarri teorikoak bereganatzeko eta kasuan-kasuan gaitasun praktikoetan trebatzeko izango ziren saio horiek. Halaber, Praktika Komunitateari edukia eta zeregina ematen hasteko bidea ere izan ziren, dinamika onena zein izan zitekeen frogatzeko bide. Horrez gain, saio horien bidez taldearen barneko kohesioa landu zen.

Hori guztia aintzat hartuta, lehen ekite-ildoan aurrera eramandako hiru prestakuntza saioak bi zatitan banatu ziren: lehendabizi gaian aditua den pertsona bat aritu zen hizlari, eta, jarraian, aurkeztu-

tako horren gainean hausnartzeko eta norberaren esperientziak kontatzeko erakundeen arteko ideia elkartrukea bideratu zen. Zehazki, honakoak izan ziren prestakuntza saioak:

- a. **Komunikazio ereduak eta komunikazio-estrategiak.** Bea Zabalondo, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea (UPV/EHU).
- a. **Komunikazio praktikak eta onargarritasun soziala.** Eduardo Apodaka, Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia (UPV/EHU).
- a. **Jendaurreko komunikazioa gaur egun: bide berriak eta ohikoak.** Patxi Azpillaga, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea (UPV/EHU). Eta **Sare sozialak jendaurreko komunikazioan. Euskararen erabilera aztertzeke erreminta** Jordi Morales, doktoregaia eta sare sozialei buruzko kontsultorea (UPV/EHU).

### 2.2.3 Ikerketa: diagnosiari begira

Lehenago aipatu izan den bezala, egitasmoaren helburuetakoa zen ikerlarien eta erakundeetako ordezkarien artean jendaurrean euskaraz aritzearen inguruko diagnostiko ireki eta askotarikoa osatzea, eta ekoizpen narratiboen teknika erabili dugu horretarako. Beraz, ikerlariak –lehen txanda batean bina baina hortik aurrera operatibitate arazoengatik banaka- sakoneko elkarrizketak egin genituen eragileekin, haiek bakarka hartuta. Elkarrizketa horren transkripzioetik abiatuta osatutako testua eragileei itzuli zitzaion eta baita haien harira sortutako galdera berriak ere. Elkarrizketatuek horren gainean zuzenketak, iruzkinak eta ekarpen berriak egin zituzten, testu adostu batera iritsi arte. Elkarrizketa gehienak ikerlariak banaka egin zituzten arren, transkripzio ostean eta berriro testua erakundeetara itzuli baino lehen, gainerako ikerlarien begirada ere jaso zen, haien iruzkin eta ekarpenen bidez. Testu horiek izan dira geroago aurkeztuko dugun diagnosien lehengaia.

## 2.3 Webgunearen diseinua eta lankidetzak Mondragon Unibertsitatearekin

Webgunea martxan jartzeko prozesua gauzatzea izan zen lehen ekite-ildoan aurrera eramandako lan osagarrietako bat; lan garrantzitsua, Praktika Komunitatea mamituko den espazio nagusietako bat baita. Talde Eragileak egin du webguneak bete beharreko ezaugarrien eta eskaini beharreko funtzio eta zerbitzuen gaineko gogoeta, eta ostean, arloko enpresa batek gauzatu du. Honela, hiru espazio diferentziatu dituen webgunea eratu da:

- **Bisitarientzako gunea:** Edonorentzako gune irekia. *Jendaurrean erabili*-ren aurkezpen eta sareko ispilu. Horrenbestez, egitasmoaren inguruko azalpen orokorrak emateko gunea.
- **Proiektuko lagun gisa izendatu direnak:** izen-ematearen bidez gutxieneko engaiamendu bat hartzeko norbanako eta eragileentzako dago pentsatuta.
- **Proiektuko kide direnak:** Intranetaren bidez Praktika Komunitatearen ekintzetan, proiektuetan eta ildoetan parte hartu ahal izango dute.

Bestalde, webgunearekin batera, bestelako ikus-entzunezko bitartekoak eskuratzeko aukera izan genuen. MU Mondragon Unibertsitatearen ekimenez haiekin lankidetzan aritzeko bidea zabaldu zen: zehazki, haien Ikus-entzunezkoetako ikasle batzuek Gradu Amaierako Lana *Jendaurrean erabili* proiektuaren gainean egitekoa. Horrela Garbiñe Maza, Nerea Medina eta Asier Fernandez ikasleek, egitasmoaren berri izanez beren prestakuntza zabaltzeko eta proiektuaren azalpena jorratuz komunikazio gaitasunetan sakontzeko modua izango zuten. Proiektuak, berriz, ikasleen lanaren emaitza baliatu zuen bere berri emateko. Izan ere, Praktika Komunitatearen inguruko lan teorikoaz gain, egitasmoaren berri ematen duten bideoak egin zituzten, prestakuntza saioetako materiala baliatuz zein Talde Nuklearreko kideak elkarrizketatuz. Bideo horiek webgunean erakusten dira.

Bi lan osagarri nagusi horiez gain, beste batzuk ere egin ziren: hala nola, Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatutako lan berezituaren gaineko aurre marrazketa bat eta Digitalo kongresurako ponentzia bat idatzi eta aurkeztu.<sup>16</sup>

## 2.4 Itxiera saioa eta hurrengo fasearen hasiera

Bederatzi erakunde erreferentzialekin Talde Nuklearra eratu eta haiekin abiaburuko hiru prestakuntza eta solasaldi saioak egin eta ebaluazio-diagnostikorako elkarrizketa dinamika aurrera eramanda, abian zen Praktika Komunitatea. Ondorioz, bigarren fase edo ekite-ildoari heltzeko unea iritsi zen, hau da, zabalkundea egiteko garaia. Aurreneko fase hori ondo biribiltzeko itxiera-ekitaldi bat egin zen, 2016ko ekainaren 17an, Eibarren, UEUren Markeskoa egoitzan. Bertan proiektuaren nondik norakoa gogoratzeaz gain, lehen fasean egindakoei buruzko gogoeta egin genuen. Halaber, etorkizuneko asmoak izan genituen hizpide, hurrengo urratsak finkatze aldera. Ordurako argi zegoen proiektuak jarraipena izango zuela eta zein izango ziren jarraitzeko urrats horiek: webgunea, erakunde gehiago gonbidatzea, lan egiteko ildo mota bi (berezitua eta arrunta) eta abar.

<sup>16</sup> <https://www.digitaro.eus/>

# 3 LEHEN FASEAREN EMAITZAK: JARDUNAK ETA LORPENAK

## 3.1 Helburu orokorrak

Proiektu honek azken helburu nagusi bat zuen eta du: euskarazko komunikazio publikoan aritzen diren eragileen Praktika Komunitatea osatzea.

Egia esan, helburu hau bitarteko gisa aurkeztu da, uste baitugu Praktika Komunitate horrek lagunduko diola euskarazko komunikazio mota horri: lagungarria izan daiteke euskaraz egiten diren jendaurreko komunikazio jardunak hobetzen, errazagoak bihurtzen, eskuragarriagoak eta erosoagoak egiten edo norentzat. Lagungarri izan daiteke, halaber, jardun horiek hedatzen eta normaltzen. Alde horretatik, proiektuak euskarazko komunikazioari eragin nahi dio, hura erraztuz, hedatuz, normalduz... Hori da azkeneko helburua, Praktika Komunitatea hartarako bitarteko edo bitartekaria delarik.

Ez dugu, beraz, zuzeneko eragin bide bat hautatu. Zeharka eta urraska doan ibilbide bat baizik. Proiektu honen gaia praktika da, ez praktikari buruzko jarrerak edo diskurtsoak. Baina argi dugu praktikari buruz gogoeta egitean edota hura nola hobetu eta erraztu daitekeen eztabaidatzean, praktikaren zentzu eta balio sozialak ere jorratzen direla. Hori, dena den, bigarren maila batean gera daiteke Praktika Komunitateko partaideek euskaraz errazago eta erosoago komunikatuz eta hori hala dela ageriaraziz aldatuko baitituzte eraginkorrago praktikaren zentzua eta balioa.

Horrenbestez, ez da proiektuaren helburua zuzenean inor ezertaz konbentzitzea, ezta propagandaren bidez iritziak edo diskurtsoak aldatzea. Egin egiten den praktika bat hobetzen eta hedatzen lagundu nahiko luke proiektuak. Izan ere, euskarazko komunikazioan nahikoa motibaturik dauden eragile asko ditugu inguruan, edo euskaraz zerbait komunikatzeko prest daudenak. Horiek badute gainera nahikoa jakintza eta esperientzia komunikazio hori egiten. Horrenbestez, Praktika Komunitatea metodo ona delakoan gaude, azken buruan, euskarazko komunikazio publikoa bera aldatzeko: a) testuingurua aldatuko baitugu neurri batean (partaideena lehenbizikoz) eta b) lidergo berri bat osatuko dugulako.

Komunitatean parte hartu dutenek elkarri aldarazi diote testuingurua. Neurri apalean bada ere izan ditugun saio eta jardunen bidez testuinguru berri bat sortu dugu (sortu diote elkarri), eta hura ere motibagarria da:

- Besteen esperientziak ezagutzeak motibatzen duelako,
- Norberarenak balioesteko aukera ematen duelako,
- Praktika hartan aritzen diren eragileek elkar ezagutzuz alderaketa eta balioespen sozialak bultzatzen direlako,
- Elkarrengandik ikastea eta harremanak egitea lagungarria delako,
- Aurrerako jardunetan bestela ekiteko abiapuntu edo marko bat ezartzen duelako.

Esan daiteke eragin hauek aktibatu ditugula. Ez dugu izan horiek kuantifikatzeko eta ebaluatzeko asmorik, eta onartzekoa da antzeman gaitzak direla, baina ez antzemanezinak.

Areago ere, hainbat kasutan aurreko efektu horiei, eta gure gaiari dagokionez, erantsi beharko genieke partaidearen testuingurua aldatzen dela euskarazko komunikazio publikoan engaiaturik dagoela ohartarazten delako, eta horretan, ahalegin komun batean, hainbat eta hainbat eragile ari direlako kontzientzia hartzen duelako. Berebiziko garrantzia dute efektu horiek, antzemateko eta kuantifikatzeko zailak izan arren.

Bistan da, hori ez da partaide guztien kasua: eragile batzuek traktore eginkizuna dute jendaurreko euskarazko komunikazioan. Baina uste dugu hainbatentzat indar traktore hori proiektuaren baitan izan dela eraginkorra, alegia, eragile batzuek traktore gisa ikusi ahal izan dituzte beste batzuk. Bide horretatik jarraitu behar du komunitateak: traktore ari direnen lan aitzindaria testuinguru lidergo bilakatzuz, ahal duen neurrian.

Hasieran aurkeztu dugun moduan, proiektu nagusiak izaera modularra izan du. Hainbat ekite-ildo edo fase proposatu ziren bertan eta aurrera egin ahala, ekite-ildoak neurriratu eta egokitu dira hainbat faktore kontuan harturik. Izaera modular horri esker egokitzapenak helburu nagusia kaltetu barik egin ahal izan dira. Alde gorretatik, lehendabiziko ekite-ildoak edo denbora hurrenkerari begira lehen fase batean aritu garela esan behar dugu.

Lehendabiziko fasea proiektuaren abiatzea izan dela esan daiteke eta bertan lortu dugun emaitza nagusia eta esanguratsua egindako ibilbidea bera dela. Hau da, hainbat eragile bildu eta euskarazko jendaurreko komunikazioaz berbetan eta iritzi trukean elkarrekin jartzea bada lorpen nabaria. Jarduerra zenbaiten bidez, elkarrekin edo zein bere aldetik euskarazko jendaurreko komunikazioari buruzko gogoeta eta solasean aritu dira fase honetako partaideek. Uste dugu ikasi eta hausnartu guztia ez dugula hemen jasoko, asko norberarengan geratuko baita. Ez dugu abian jarri ditugun jardute ildo edo eragin guztiak zuzen ezagutzerik, are gutxiago ebaluatzerik. Baina prozesuaren lanak, jardunak, esanak eta abar bildu ahal ditugu.

### 3.2 Praktika Komunitatea eratzea eta abiatzea

Lehendabiziko fase honetan proiektuan lehen ekite-ildoak zeritzona gauzatu dugu. Haren helburua Talde Nuklearra sortzea, prestatzea eta abiaraztea zen eta abian jarri dugu talde hori bederatzi eragilerekin. Lantalde horrek eman dio Praktika Komunitateari bere hasierako egituraketa eta esan daiteke saio probetan aritu garela komunitate hura nolakoa izan daitekeen ikustatzen.

Proiektuaren marko orokorrean ikusi dugunez, Praktika Komunitate batek funtsezko hiru ezaugarri izan behar ditu: eginkizun komuna, elkarrenganako engaiamendua, erreperitorio partekatua.

- **Eginkizun komunari begira** ekimen bera izan da gure ardatza. Saioretan interes eta jakingai komunak, arazo eta erronka komunak edo antzekoak agertu dira. Ez da eginkizun bakar bat esku artean duguna, jardute eremu zabal bat baizik.
- **Elkarrenganako engaiamendua:** fase honetan parte hartzeko lasaitasuna, erosotasuna, kon-

fiantza eta elkarrekotasuna bultzatu ditugu eta giro positibo eta emankorra lortu dugula esan dezakegu. Horrek lagundu digu jakiten hurrengoetan zein nolako parte hartze mailak, estiloak, ardurak, eta abar, proposatu ahal diren.

- **Errepertorio partekatua** bai lan saioetako eztabaidetan, bai elkarrizketetan, landu dugu. Ez da proiektuan diagnostiko bakarra adostea, baina ikerlariok ondorioztatu ditugu hainbat iritzi eta ardua komun. Eragileak bai izaeraz, bai jardueraz oso diferenteak izan arren, badira adostasunezko gaiak euskarazko komunikazio publikoari buruz.

### 3.3 Lan saioak: zer ikasi dugun eta zer irakatsi diogun elkarri

#### 3.3.1 Adituen ekarpenak

Hasiera batean prestakuntza saioak Talde Nuklearreko partaideek proiektuaren oinarri teorikoak bereganatzeko eta kasuan-kasuan gaitasun praktikoetan trebatzeko proposatu ziren. Lehenengoari begira praktika komunitateak zer diren eta Jendaurrean Praktika Komunitateak zein helburu eta egin-kizun beteko zituen azaldu genien partaideei. Bigarren helburua, berriz, saioetan adituen ekarpenen bidez landu genituen.

Hiru saio nagusi izan ziren horiek. Hiruretan aurreikusitako gaiak jorratu ziren eta guztietan, hitzaldi edo aurkezpenaren ondoren solasaldi zabalak izan genituen gai horiei buruzkoak (eta aurretiaz bidalitako gogoeta fitxa baten laguntzarekin). Horrez gain eta esan dugun bezala, saio horiek izan genituen taldearen barneko kohesioa eta lan-giro onuragarria sortzeko abagune.

Gaiei dagokienez, zerrenda luzetxo bat proposatu zen hasieran trebakuntza espektrao betetze aldera (komunikazioa, komunikazio-testuingurua, hizkuntzen balioa gizartean, euskara kapitalizatzea, aldaketa eragiteko jakintza, lidergoa eta komunikazio-estiloa...). Horko batzuk aurrerago jorratzeko aukera izango dugu, baina fase honetan hiru arlo nagusitara laburtu genituen: (1) komunikazio praktikak oro har, (2) berrikuntza sozialaren legitimazioa, eta (3) komunikazio modu eta teknologia berrien kudeaketa.

#### 3.3.2 Arituen ekarpenak

Lan saioek eginkizun bikoitza izan zuten: prestakuntza batetik, eta bestetik, gogoeta eta iritzi zein esperientzia trukerako solasaldiak izan zitezela saiatu ginen. Jarraian zehazten da saio bakoitzeko hausnarketetatik ateratako ideia nagusiak zeintzuk ziren.

##### a) Lehen Formakuntza saioa: Komunikazio praktikak

Lehendabiziko solasaldi honetan komunikazio estrategiei eta bitartekoei buruz aritu ginen. Partaide bakoitzak azaldu zuen gutxi asko zein zen bere erakundearen komunikazio jarduna. Berehala agertu ziren gai eta ardua komunak: barne eta kanpo publikoak bereiztearen egokitasuna, komunikazio planen eraginkortasuna, bitartekoak etengabe egokitu eta berritu beharra, eta abar.

Euskarazko komunikazioa gai horien erdian agertu zen etengabe:

- Euskaraz komunikatzeko publikoak zehazteko beharra aipatu zen, baina kanpo-publiko orokor bati begira hori zaila denez kanal eta espazio bereziak zabaltzeko egokitasunaren alde-

ko eta kontrako argudioak entzun genituen. Horri lotuta, *bitarteko berriek* (sare sozialak eta antzekoak) eskaintzen dituzten abantailak izan genituen hizpide. Baina, hala ere, argi zuten gehienek bitarteko horiek egoki erabiltzeko asko dagoela oraindik ikasteko.

- Hasieratik bertatik, *komunikazio publikoaren geruzak* eta mailak nola ari diren nahasten egiaztatu ahal izan genuen: harreman publikoak, irudi korporatiboa, barne eta kanpo publikoak, eta hedabideekiko harremanak erruz ari dira aldatzen. Kasu batzuetan, nekez bereizi ahal dira barne eta kanpo publikoak, bestetan komunikazio-jarduna identitate edo irudi korporatiboarekin nahasten da, edo jardun arruntak asko du komunikaziotik...
- Argi geratu zen horretatik guztitik, gaur egun, dena dela komunikazioa, *etengabe komunikatzen* ari direla erakundeak eta horren kontrola oso konplexua eta zaila izaten dela, kasu askotan erakundearen inguruan zarata asko sortzen duelako publikoak berak (*publikoaren alderdi aktibo* hau behin eta berriro agertu zen solasaldietan). Hala, euskaraz egiteko ahaleginek porrot egin ahal dute ez bada zaintzen eta bereizten euskararentzako lekua, aukera, edota presentzia. Hau da, berariazko kontrola, ahalegina edo planifikazioa behar-beharrezkoak dira gaurko egoera linguistikoan. Alde horretatik, bakoitzak erabiltzen dituen taktikak eta amarruak aipatu ziren (euskaraz igortzen diren mezuen edukia berezia izatea, gainbalioa izatea, kanala berezia izatea, forma aldetik bereizgarritasuna ematea...)
- *Komunikazio Planei* ere eztabaida edo iritzi trukea izan genuen. Alde edo kontra egon, kasu guztietan bat etorri ginen planek berez ezer gutxirako balio dutela ez badago haiek egikaritzeko asmo serioa. Aurrekoarekin lotuta, euskaraz komunikatzeko ahalegin berezia egin behar denez, jarrera kontzientea behar-beharrezkoa dela uste zuten gehienek eta "ohiturak aldatzea dakarten praktikak" bultzatu behar direla berariaz. Hori hala edo nola planifikatu edo antolatu behar da.
- Alde horretatik gure ibilbidean sarritan errepikatu den arazo bat agertu zen: maiz, komunikazioa eta euskara arloak bereizita daude erakundeetan eta komunikazioaz arduratu dutenek ez dakite euskaraz egiten, edo euskara (eta euskaraz komunikatzea) ez dute euren eginkizuntzat hartzen.
- Azkenik, solasaldi honetan berebiziko garrantzia duen kezka bat agertu zen: sarri, euskaraz komunikatzen (edo erabiltzen) hasten denean, ohiturak hautsi behar dira, eta hor haustura kolpe bat gertatze da. Askotan ere, asmo horretan engaiatzen direnak zoro gisa hartzen dituzte ingurukoek. Partaideek erabili zituzten hitzak oso esanguratsuak dira: «krak egitea», «zoro», «arrotz», «taliban»... Horri aurre egiteak eskatzen du euskaraz komunikatzeko ahaleginen legitimizazio berezia, euskararen erabilera parametro orokor eta positiboetan ezartzea, hain zuzen.

Oro har, lehendabiziko solasaldi honetan, partaideek aukera izan zuten besteen komunikazio jarduna ezagutzeko eta euskarazko komunikazio publikoaren alderdiak eta ertzak, zein bere esparrutik eta jardun berezitik, agerian uzteko.

#### **b) Bigarren Formakuntza Saioa: berrikuntza sozialen legitimazioa**

Bigarren saioan komunikazio-praktikak eta onargarratasun soziala jorratu genituen. Solasaldia- ren hasieran prentsaurrekoetan izaten diren arazoak izan genituen hizpide. Euskararen erabile- raren onargarratasuna izan zen abiapuntua, baina berehalakoan agertu zen kazetari eta heda-



bideen aldetik zein den jarrera euskara erabiltzen denean. Hainbat partaidek nabarmendu zuten erakunde batzuei erraz onartzen zaiela erabilera hori, nolabait aurreikusten dela haien izaera eta jarduna direla eta, euskaraz arituko direla, eta normaltzat hartzen zaiela jokaera hura. Horrek badu bere alde txarra: batzuetan eragile horien berriak erabiltzen dituzte hedabideek euren euskara "kuota" betetzeko. Beste batzuek, UPV/EHU adibidez, diote guztiz onartzen zaiela ele bietan egitea, alde horretatik, badirudi eragile bakoitzak irudi bat duela hizkuntza erabilerari dagokionez eta horren arabera jokatzeko dutela medioek. Eragilearen izaera edota jarduera-arloaz gain (batzuk oso lotuta euskalgintzari, edo izaera ofiziala), eragileak barrutik bultzatzen duen hizkuntza erabilerak badu zerikusirik horretan.

Batetik edo bestetik, hainbat ohitura dituzte hedabideek hizkuntzak erabiltzeko orduan, eta gehienek erdararen alde egiten dute. Prentsaurrekoetan ohitura horiek agerian daude: ele bietan egiten direnetan erdaraz egin ohi dira lehendabiziko adierazpenak eta euskararen txanda heltzen denean kazetari askok bukatutzat ematen dute saioa eta alde egiten dute. Euskara osagarri legez agertzen da horretan.

Kasu batzuetan eragileek ohitura horiek gainditu nahi izan dituzte, euskaraz gehiago edo beste modu batera komunikatze aldera eta topo egin dituzte ohiturek ezarritako oztupoekin. Horiek gainditzeko taktikei buruz hitz egin genuen. Oro har, aurreko prestakuntzari eta xede taldearen arabera jokatzeko jakiteari garrantzi berezia aitortu zieten. Alde bietatik, euskaraz komunikatzen denean sortzen diren edo sor daitezkeen ukoak, erreakzio negatiboak eta abar aurretiaz zaindu eta gainditu beharko lirakeke. Orokorrean bat egin zuten partaideek ideia horiekin: hedabideekiko komunikazioetan, eta zabalago esan edozein komunikaziotan, aldatetako prestatu, planifikatu, iragarri eta aurretik landu behar dira.

Eragile guztiek dute hizkuntzen erabilerari buruzko jokaera zehaztua. Hainbatek erabaki sendoetan eta plan zehaztuetan ezarrita dute, beste batzuek, ordea, ohitura edo jokatzeko estiloari eusten diote. Hala ere, guztiek hartu behar izan dituzte hainbat eta hainbat erabaki euskarazko komunikazioari dagokionez, eta argi dute gaia konplexua eta zaila dela. Zailtasun handienetakoa, eta behin eta berriro errepikatu dena gure saioetan, medioen jarduna eta eragina da. Hedabideek "komunikazio ekosistema" bat eratzen dute eta han euskarak ez du leku handirik. Hala ere, joan diren urteetan egoerak asko hobetu du, EITBk aldatu zuen ekosistema hori eta gutxienez euskaraz komunikatzearen normaltasuna irudikatzen bidea zabaldu zen. Oro har, nahikoa argi geratu zen espazio mediatikoan hedabide batzuek duten indarra ez dela, une honetan, euskaraz komunikatzeko abantaila. Hala ere, ekosistemari buruz (nola sortu den, nola mantentzen den eta abar) ez genuen hitz egin eta bistan da hori dela, hain zuzen, euskaraz komunikatzeko testuingurua. Maiz errealitatea hura dela esatera mugatu zen solasaldia.

Beste batzuetan bezala, saio honetan sumatu ahal izan zen jendaurreko komunikazioaren geruzak edo izariak aldatzen ari direla eta publikoak zatikatuta egoteaz gain haiengana heltzeko bideak aski ugaltzen ari direla. Partaide batzuek, esaterako, hedabideetatik aparte komunikatzen dute euren publikoekin eta aurreikus daitekeenez joera hau gero eta bizkorragoa izango da.

Saioren azken partean, onargarritasunaren gaia hedabideekiko harremanetatik kanpora eraman eta jendaurreko beste komunikazio bideei buruz hitz egin genuen. Han agertu zen onargarrita-

sun pasibo eta aktiboaren arteko aldea. Nolabait, erraz onartzen da erabilera pasibo edo inerteia (kartelak edo seinaleak euskaraz jartzea, prentsa oharrean ele biak agertzea) baina nekezagoa da erabilera aktiboa (euskaraz ahozko komunikazioa egitea). Eta azken honetan omen daude jendaurrean euskaraz komunikatzeko erronkak.

**c) Hirugarren Formakuntza Saioa: komunikazio modu eta berrikuntza sozialen kudeaketa**

Hirugarren saioan, komunikazio-praktiken berrikuntzari ekin genion, bide tradizionalak eta bide digitalak bereiziz eta azken horiek hobeto kudeatzeko eta erabiltzeko informazioa jasoz. Oso ideia argigarriak planteatu ziren. Mintzagaia komunikazio bide berriak eta sare sozialak izan ziren eta partaideek banan-banan kontatu ziguten zein diren erabiltzen dituzten medio berri horiek eta nola egiten duten. Guztiek erabiltzen dituzte Interneteko aukerak eta sare sozialak. Denek aitortzen dute ikaste garaian gaudela eta oraindik ere berrikuntza askorekin lehendabiziko hartu-emanetan daudela, baina horrez gain aurreikusten dutela berrikuntza erritmoa ez dela geldituko. Baina hau dena baino interesgarriagoa izan zen arazoak azalduz arazoetan nola ari diren ikasten esplikatu zutenean.

Gehienek agertu zuten medio berri hauen aurrean sentitzen dutela kontrol galera, edo kontrol ezintasuna eta beti atzeratuta ibiltzearena. Bai tamainak, bai teknologien zailtasunek, bai komunikatzeko edo harremanak izateko moduek oso konplexua egiten dute mundu hau. Eta, batez ere, oso zailtzen dute eragileek euren irudia eta komunikazio-estiloa kontrolatzea. Batzuek neurriak hartu dituzte dagoeneko: foroak ixtea, bazkide-gune bereziak zabaltzea... Euskarari dagokionez ere neurriak hartu dituzte euskara ito ez dadin, edo desager ez dadin zabalegiak diren eremuetan (Twitterren, esaterako), baina honetan ez zegoen argi zein den taktika hobereana: bereiztea eta euskarari kontu propioa ematea, kontu bakar batean euskara eta erdara erabiltzea, edo kontu bereziak izanda ere euskarari erdal kontuan lekurik ematea. Bistan da helburu estrategikoez zehaztu behar dutela zein den taktika egokiena, hau da, helburu bakoitzak baduela bere zehaztapen taktikoa.

Aurreko saioan agertu zen gai bat gordinago agertu zitzaigun hemen: espazio publikoa ez da hedabide tradizionalen espazioa, eragile askok zuzenean komunikatzen dute euren publikoekin, gero eta zehatzago hautatzen dituzte publiko horiek eta gero eta bereziago sortzen dituzte haiei igorriko dizkieten mezuak. Hau da, kasu batzuetan hedabideak ez dira komunikatzeko lehendabiziko aukera eta halaber, publikoak zatikaturik egoteaz gain, bereziagoak dira. Publiko horiek dimentsio edo tamaina oso desberdinekoak dira, hainbat kasutan mundu zabaleko publikoak dira. Ondorioz, gero eta hizkuntza gehiago erabiltzen dituzte (hau bistakoa Athletic, Guggenheim eta besteren baten kasuan) eta hizkuntzak erabiltzeko irizpide eta politikak konplexuagoak dira.

Bi alderdi horiek (zuzeneko harremanak publikoekin eta izari edo geruza askotako publikoak) euskarazko komunikazioa nola kudeatu izan genuen hizpide, baina hau berebiziko garrantzia duen gaia da eta gogoetari eta esperientzia trukeari jarraipena eman beharko diegu.

### 3.4 Diagnosi bidean

Proiektuaren zutabeetako bat diagnosi antzeko bat egitea zen. Diagnosi antzekoa diogu ez zelako zuzen-zuzenean diagnostiko oso bat, hori bainoago, planteatu zen eragileekin narrazio bana egitea

eta narrazio edo kontakizun guztiak batzea ahots aniztasuna ez murrizteko. Proiektuaren oinarri epistemologikoekin bat eginez, ez genuen ez inor ebaluatu, ez inongo azterketa kuantitatiborik egin nahi. Narrazioak eta beraiek egiteko prozedurak Praktika Komunitateko prestatzeko, eratzeko eta osatzeko ariketa izan ziren.

Ariketa gisa hainbat ataza aurreikusi genituen, ekoizpen narratiboak deritzon teknikari dagozkionak hain zuzen: elkarrizketa, testu idazketa, testu zuzenketa, eta parte arteko elkarreragina. Narrazioak modu horretara, prozesu baten azken produktuak baino ez dira. Aurretiaz joan dira partaideen gogoeta, elkarrizketako solasaldiak, testuen prestatketa eta abar. Horrela bi helburu bete genituen:

- Batetik, partaide bakoitzak bere komunikazio jardunaz hausnarketa egin behar izan zuen eta hura nolakoa den azaldu behar izan zion kanpoko entzule bati, alegia ikerketa taldeko kideei;
- Bestetik, hausnarketa hori denon artean izan ditugun solasaldi zabaletan egindako iritzi eta esperientzia trukeetan zeresana antolatzeke, eta konpartitzeko modurik izan dute partaideek.

Hori dena, bere horretan, bada lorpen nabaria gure proiektuan. Hainbat helburu ari gara bertan erdiesten: jardunaren zentzuaz gogoeta egitea, jarduna balioestea, jardunerako ezagutza handitzea, ikuspegi anitz elkartzea... Izan ere, jardunari buruzko ezagutza (jakintza praktikoa, alegia, erabilgarria, egoerara egokitua eta arizalearen ezaugarria bilakatua) kontakizunen bidez egituratzen eta partekatzen da. Baina horrez gain, eragileen komunikazio jardunak eta estiloak eta euskarazko komunikazio publikoan duten eskarmentua bildu ahal izan dugu, modu laburrean bada ere. Eta bilduma hori "ahots anitzetik erronka komunitara" ibiltzeko gida modua erabili nahiko genuke, esan bezala euskarazko jendaurreko komunikazioari buruzko askotariko diagnostia ematen digutelako.

### 3.5 Narrazioak: erronka komunak eta aurrera jotzeko ildoak

Txosten honetan behin baino gehiagotan esan dugun bezala, diagnosi sintetikoa egin beharrean ahots anizten dialogoak bultzatzea eta horiek erronka komunitara bidean jartzea izan da asmoa. Erronka komunak, esan barik doa, ikerlariak ondorioztatutako erronkak dira, betiere, Praktika Komunitate baten ikuspegitik egin den ondorioztatzea. Praktika Komunitatea sortze asmo eta lanetan gabiltzanez gero, partaideek zer duten komun aztertu behar genuen, komunitatea abiarazteko eta gauzatzeko orduan ezinbestekoa baita ezagutza komunak zein diren zehaztea, arazo komunak zein diren jakitea, eta aurrera begira elkarri zertan lagundu diezaioketen aurreikustea.

Narrazio edo kontakizun horietan agertzen diren iritziak ez ditugu bateratu; alderantziz, ikuspuntu desberdinak sintetizatu barik, bere aniztasunean, elkartu edo uztartu nahi izan ditugu. Hala ere, badira ardatz argiak, non gehien gehienek bat egiten zuten, gutxienez, ardura eta kezka ardatzak horiek zirelako iritziak. Eta badira, halaber, ikerlariak nabarmendu nahi izan dituzte iritziak, jarrerak eta gogoeta-gaiak. Eta azkenik, badira esandako eta egiteko moduetatik ondoriozta behar diren hainbat kontu.

Bilduma eginda, partaideei beraiei aurkeztu genizkien erronka komunak Itxiera Saioan eta horietan oin hartuta Praktika Komunitatearen hurrengo faseak nola garatu erabaki dugu. Hitz gutxitan, hauek dira Praktika Komunitatearen gaiak eta beharrak, egin beharrekoak eta ebatzi beharrekoak:

- **Erakunde traktoreen eginkizuna:** Ospe eta tamaina handiko erakundeek, erakunde publikoa izan edo ez, traktore gisa jokatzeko dute euskarazko komunikazio publikoan. Alegia, gai dira, bere jardunez, beste erakunde edo eragile batzuk euskarazko komunikazio publikoa egin dezaten erakartzeko. Traktore izaera ez zaie tamaina edo aitzindari gisa jokatu izanagatik etortzen, alderdi horiek baino garrantzitsuagoa da euskarazko komunikazioan engaiaturik egotea eta erreferentzialtasun publikoa izatea, biak uztarturik agertzen da traktore izaera.
- **Euskara, bereizgarri positiboa** (marka bereizgarria): aurrekoari lotuta, jakitun dira erakunde traktoreak euskara bereizgarri positibo bihurtu ahal dutela erabileraren bitartez, batez ere erabilera hori zentzuzko markoetan aurkezten bada. Bereizgarritasun hori modu askotara ulertu ahal da: erakundearen bereizgarri positiboa izan daiteke publiko hurbil batentzat, edota bereizgarri horrekin aberastu ahal da erakundearen identitate korporatiboa.
- **Komunikazio eta informazio espazioaren agenteekin lan egin beharra dago:** Espazio horren ezaugarriak (taldeak, jarrera ideologikoak edo inertziazko joerak...) direla eta, premiazkoa da birtartekaritza eta elkarlana bultzatzea adostasun minimoak lortze aldera.
- **Xede talde bereziak eta euskara positiboki bereizteko neurriak:** aurrekoari estuki lotuta, eragileek badituzte kasu batzuetan euskaraz aritzeko xede talde bereziak. hau da, badakite xede talde edo sektore bati euskaraz egin dakiokela edo euskaraz egitea komeni dela. Halakoetan euskarari lehentasuna ematea adostasun handiko iritzia da. Gainera, erabilera bereizi horren bidez euskarari balio positiboa ematen zaio.
- **Legitimitasun eta normalitate graduak:** Oro har, onartutzat eta normalduzkat jotzen da euskararen erabilera "inertea" (hau da, hizkuntza-paisaiako osagaiak, idazki eta inprimakiak, e.a.). Badira, hala ere, salbuespenak: mugak zonaldeen arabera, edota kasu berezietan.. Maiz, arazoak onargarritasun eta legitimitasun mailari lotuta daude. Hala ere, erakundeek legitimitasunaren indargarriak erabiltzen dituzte: lege markoaren babesa, ele aniztasuna, zerbitzuaren kalitatea, e.a. Honetan ere, eragile batzuek modu kontzientean egiten duten bitartean, euren asmo eta helburuak betetze aldera, beste batzuek jardunarekin batera ikasitako errekursoak, erantzunak, egokitze-jokaerak eta abar erabiltzen dituzte. Esan beharra dago jarduna bera ere onargarritasun iturri gisa ulertzen dela, alegia, euskarazko jardun normaldu edo ohikoak onargarritasuna handitzen duela berez.
- **Elebitasun sistematikoaren gutxiengo babesa:** aurreko aipatu diren onargarritasuna lortzeko bideetan azpimarratzekoa da maiz ele bitan aritzea legea betetze aldera egin beharreko jarduna delako argudioa (batez ere, erakunde publiko batek informazioa zabaltzeari dagokionez). Batzuetan, beraz, lege betetze hark sistema gisa euskararen alde jokatzeko du, batik bat, testuinguru erdaldunetan.
- **Erakundearen euskaraz komunikatzeko ahalmena.** Beste maila batera joanda, erakunde edo eragile bakoitzak bere baliabideak ondo ezagutu eta ondo erabili behar ditu eta horien garapena estrategikoki diseinatu eta kudeatu beharko ditu. Nekez hasiko da euskaraz komunikatzen helburu horretarako prestatu ez den erakundea, baina aldi berean, komunikazio hori praktikan jartzen baino ez du hartuko normaltasun mailarik.

- **Euskaraz komunikatzeko jardunbide zehatzen esperientziak:**
  - ✓ **Elkarlaguntzako taldeak eta sareak:** Erakunde, barne komunikazioari begira, euskara-sare eta taldeak eraginkorrak dira. Boluntarismo eta instituzionalizatutako praktiken artean mugitzen dira eskuarki.
  - ✓ **Euskarazko «ibilbideak»:** Lan prozesua hasieratik euskaraz egitea litzateke hobereena, komunikatuko dena euskaraz sortua dela ziurtatuz (komunikazioan, barrutik kanpora ibilbide osoa euskaraz). Logikoa denez, lana euskaraz eginez gero komunikazioa ere etenik gabe joango da euskaraz.
  - ✓ **Taktika bildumak:** Erakunde gehienek badituzte hainbat jokaera edo trikimailu euskara erabiltzeko, erosoago erabiltzeko edo besterik gabe ikusgarriagoa egiteko. Askotan praktika hutsaren ondorio dira eta ez dira formalizatu edo arautu. Oso kontu sinpleak izan daitezke; esaterako, nola idatzi mezuak ele bitan edo nola egin aurkezpen bat euskaraz publikoa guztiz euskalduna ez denean. Lan saioretan horietako asko azaldu dira eta kasu batzuetan horiek nola hobetu izan dugu hizpide.
  - ✓ **Ekitaldi publikoak aurretiaz prestatzea** (eta ohitura bihurtzea). Aurrekoaren ildotik, komeni da, oro har, jendaurreko komunikazioa ondo lantzea eta are gehiago euskara erabili nahi denean.

Aurreko guztiak ez dira, beraz, arazo edo konpondu beharreko egoerak. Baina argi dago erronka gisa har daitezkeela eta ondorioz, aurrera jarraitzeko ildo komunak azaltzen zaizkigula. Sor daitezkeen guztiei ezin die Praktika Komunitateak aurre egin, ezin dira izan Praktika Komunitatearen hurrengo jardute-ildoak. Baina horietako batzuei ekin beharko die, nahitaez proiektuak aurrera egingo badu.

Oso labur, eta soil-soilik ildo horiek zein eta nolakoak izan litezkeen, proposamen bakan batzuk aletuko ditugu:

- **Erakunde Traktoreen komunikazio elebidunaren estiloa** zehaztu, landu eta eredu gisa hedatu. Nolabait, Ele biko Komunikazio Korporatiboaren estiloa gida, "praktika onen gida" (ofizialak diren hizkuntzen erabilera diferentziala kontuan harturik, baina kalitate eta zerbitzu osoaren ideia, eta irudi korporatiboaren bereizgarri gisa...) Ele bitan aritzea bakoitzak bere komunikazio estiloa badu ere, guztien artean estilo bat definitu litekeela uste dugu, eta estilo hori eredu izan liteke beste edozein erakunderentzat.
- **Erakunde-lidergo linguistikoa.** Erakunde-lidergoa, erakunde publiko-pribatu erreferentzialak, euskararen erabilera(n) nabarmendu, eredu bihurtu. Ildo honek berezko lotura du Praktika Komunitatearen proiektu osoarekin; izan ere, testuinguru berri batean mugitzen dira komunitatean parte hartzen dutenak, eta ohartu barik ere, lidergo funtzio bat sortzen dute.
- **Markoen lanketa:** marko berrien lanketa. Esaterako, hizkuntzaren erabilera zerbitzuen kalitate eta bikaintasun ideiei edota berdintasunezko eta begirunezko tratuari lotzeko lana egin behar da. Euskarazko komunikazio-praktika publikoak erakunde, elkarte, enpresa, talde eta abarren praktika onen erakusgarri bilakatu beharko genituzke. Edo aniztasun linguistikoa testuinguru onetsi eta haren normaltasuna landu.

- **Eta beste:** nortasun partikular baten adierazgarri, merkatu bereizgarri edo marka gisa; hedabi-deekin lan egin eta elkarlanerako protokoloak sustatu; beste arlo askotan bezala, normaltzat jotzen dena hedatu eta zabaldu (idatzizko edo grafikozko komunikazio osoa euskaraz ere eman); barne-ibilbideak nola antolatu ikertu (barne-komunikaziotik kanpo-komunikaziora) edo praktika eraginkorren zerrenda edo bankua egitea...

### 3.6 Hurrengo faseari begira

Lehendabiziko fasea bukatuta, hurrengoa nolakoa izango den planifikatzen eta erabakitzen hasi ginen. Une honetan, 2017ko hasieran, badugu gutxieneko diseinu hori eta dagoeneko martxan jarri dugu. Honakoak dira esaldi bakarrean bilduta fase honetarako ezarritako helburuak: *praktika komunitatea indartzea kide berriak erakarritz, sarea zabalduz, eta garapen ildoak, zerbitzuak eta egitura zein edukiak antolatuz.*

Zein da, horrenbestez, 2017ko Jendurrean Erabili proiektuaren egitekoa? Arestian esan legez: hemendik aurrera sarea zabaldu, komunitatea sendotu eta trukeak zein sinergiak sustatu beharko ditugu. Baina hori lortze bidean bi ekite-ildo proiektatu ditugu:

- **Plan orokorra** edo ekite-ildo arrunta izango dugu. Hori izango da praktika komunitatearen ardatza, proiektuko kide diren erakunde guztiek bertan parte hartzeko aukera izango dute. Plan Orokorra mamitzeko lau lan saio izango ditugu. Eduki bikoitza izango dute saioek: prestakuntza alde bat, aditu baten eskutik eta solasaldi irekia. Prestakuntza saioetan euskarazko komunikazio publikoarekin loturiko gai jakinen inguruko informazioa eta formazioa eskainiko da. Solasaldiak, berriz, erakundeek gai horien inguruan euren esperientziak eta beharrak partekatzeko aukera izango da, praktika komunitate mailan ezagutzak partekatu ahal izateko. Horretaz gain, azken saioan urtean zehar egindako lana hausnartu eta lortutako emaitzak baloratuko dira, bai eta 2018an egitasmoak izango duen egitura zehaztu ere.
- **Garapen Ildo Berezitua.** Garapen ildo hauek erakundeek dituzten interesen arabera sortzen dira, eta ondorioz, kide diren erakunde guztiek dute horiek proposatzeko aukera. 2017an garatuko den Garapen Ildo Berezitua Praktika Komunitateko kide den erakunde batek proposaturikoa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak, hain zuzen ere. Ekimen honen helburua jendurrean komunikatzen duten eragileen komunikazio-estiloa aztertzea eta hura hizkuntzen berdintasun aldera eramateko en-gaiamenduari forma ematea da. Lan hori autonomiaz egingo du ekite-ildoan parte hartu nahi duten eragileek, alegia, taldeak berak definituko du, bere behar eta nahien arabera, zein izango den bileren maiztasuna, lekua, iraupena, baina baita ere erabilitako metodologia, finkatutako helburuak edota emaitzen kudeaketa. Noski, ikerketa-taldearen laguntza eta sostengua izango dute partaideek.
- **Ikerketa garatzea.** Proiektuak ikerketa-ekintza parametroetan sortu eta garatu da orain artean eta bide horretatik jarraituko du aurrerantzean ere. Praktika komunitatea metodo gisa ari gara erabiltzen, gure kasuan dinamika soziolinguistikoetan eragin nahi dugu, jendurreko komunikazioan hain zuzen. Hartan lorpenak ikustea, haiei antzematea, oso zaila izan daiteke askotan, eta zeharkako adierazpideen edo adierazpen subjektiboan bidez lortu behar da horien ebaluazioa. Hala izanda ere, ekite-ildo honen bukaera aldera bai zeharkako hainbat adierazleen bidez bai zu-

zeneko partaideei zein inguruko eragileei galdetuz praktika komunitateak eragite eta ekite metodo gisa izan duen bilakaera eta eragimena ebaluatuko dugu.

Bestalde, praktika komunitatearen egitura bera definitzen hasiak gara, ezinbestekoa baita, proiektuaren hasierako proposamenetan esaten zen moduan, praktika komunitatearen irudi eta eragin publikoa lantzea eta indartzea hainbat geruzaren bitartez: erdigune aktiboa eta elkarrekintzan diharduena, inguruko geruza hurbila, hura ere zuzeneko eragin sarean, eta periferia zabal bat, gutxienez praktika komunitatearen berri izan beharko lukeena. Gehiena egiteke dugu, jakina. Baina, zehazte eta gauzatzeko aldera, aurtengo ekite-ildoan partaidetza desberdinak egongo dira, erakundeek dituzten interesen eta ahaltasunen arabera, batekoa edo bestekoa hautatzeko aukera izango dutelarik. Bi dira partaidetza horiek.

	Proiektuko KIDE	Proiektuaren LAGUNA
PARTAIDETZA	Aurrez aurreko partaidetza eta partaidetza birtuala	Partaidetza birtuala
INFORMAZIOA	Proiektuaren inguruko azken berriak eskuratzeko aukera	Proiektuaren inguruko azken berriak eskuratzeko aukera
EKIMENAK	Egiten diren ekimenetan parte hartzeko aukera	Egiten diren ekimenen inguruan informatuak egoteko aukera
PRESTAKUNTZA SAIOAK	Prestakuntza Saioetan parte hartzeko aukera	Prestakuntza Saioetan zein gai landu diren ezagutzeko aukera
MATERIALA	Lantzen den material guztia (bideoak, testuak, audioak...) eskuratzeko aukera	Zenbait materialen laburpenak eskuratzeko aukera
HARREMANAK	Erakunde parte hartzaileekin zuzeneko harremana edukitzeko aukera	

Oso errazki aldatu ahal izango dira partaideek batetik bestera eta erabat irekia izango da komunitatera bertara sartzea ere. Proiektuko Lagun edo Kide egiteko webgunera jo beharko da. Bertan, proiektuan izena ematearekin batera, zer-nolako partaidetza izan nahi den adierazteko aukera egongo da. Hala nahi izanez gero, hasiera batean aukeratutako partaidetza aldatzeko aukera egongo da beti.

Partaidetza horien arabera, komunitatean parte hartzea ez ezik, komunitateko zerbitzuak edo baliabideak erabiltzeko eskumena ere desberdina izango da.





## 4 BEGIRADA OROKOR BAT ORAIN ARTE EGINDAKOARI

Azaldu bezala proiektuak lehendabiziko fase bat baino ez du egin. Goiz da bere osotasunean proiektua baloratzeko baina zerbait esan daiteke bai metodoari buruz, bai helburu hurbilei buruz.

Hasierako helburuak lortu dira: praktika komunitatearen Talde Nuklearra osatu eta esperientzia pilotu bat izan dugu urte batez. Esperientzia horretan ere hainbat lorpen izan ditugu: saioak (trebatze aldetik), elkarrizketak eta eztabaida saioak (bai ikerketa aldetik, bai ikaskuntza aldetik), askotariko erakundeak jartzea jendaurreko komunikazioan hizkuntza hautuek betetzen duten rola eta euskararen sustapenaren gainean gogoeta egiten eta, esan barik doa, elkar ezagutzen.

Eta horrez gain, proiektuari jarraipena ematea lortu dugu. Oro har, jarraipenean landu beharrekoak izango dira orain arte egindakoari zentzu biribila emango diotenak:

- Komunitatea euskarazko komunikazioan oso engaiaturik diren taldeez gain, bestelako eragileak erakarri beharko genituzke;
- Diagnosirako dialogoa etengabekoa egin: argazki bat izan beharrea, prozesu gisa ulertu eta horretan oinarritu hurrengo ekimenak;
- Praktika komunitateak autonomiaz jardun dezan lan egin behar da (partaideen arteko elkarrekin-tza bultzatuz);
- Proiektu berriei (eta eragileen proiektuei) leku egin eta haiek sustatu eta bermatu

Labur esan, praktika komunitatea da lehendabiziko helburua eta aldi berean metodoa. Egia da hastapeneko fasean talde txiki bat baino ez dugula batu, baina aldi berean askotariko talde bat osatu denez gero elkarrekintza berezia izan da. Erakundeak, zein bere arloan eta tamainan, oso desberdinak izaki bat egiten dute bai praktikan bai erreferentzialtasunean.

Bistan da proiektu honen azken helburua euskarazko komunikazio publikoan eragitea dela, hura erraztu, normalizatu eta zabaldu nahiko luke; hartarako, praktika komunitatea bitartekoa baino ez da eta gauzak ondo joatera, komunitate edo sare bat izan beharrea hainbat sortu beharko lirateke. Baina esan bezala, goizegi da helburu horiek noraino eta nola beteko diren aurretateko. 2017aren bukaeran saiatuko gara ebaluazio zabalagoa edo harkorragea egiten zentzu horretan, hala ere, egindako bideari, berez, nahikoa baino gehiago irizteko arrazoiak ditugu une honetan bertan. Ezagutza sortzeko eta kudeatzeko metodo bat (Praktika Komunitatea) probatu dugu berez zaila zen eremu batean (jendaurreko komunikazioko askotariko eragileak)

Txosten honetan esan dugun bezala, praktika komunitateak, jakintza eta esperientzia partekatze tresna den aldetik, zeharkako bide bat da euskarazko komunikazio publikoa suspertze eta normaltze

aldera. Buruan dugu neurri apal batean komunikazio testuingurua aldatuko dugula, dagoeneko hainbat eragileri aldatu zaiola komunitatean parte hartu dutenez gero. Aldaketa horren intentsitatea eta hedapena hemendik aurrerako ahaleginen eta baliabideen arabera ahitu edo handituko dugu. Praktika komunitatearen ahaleginak, beraz, lidergo sozialari lotuak dira: elkarrekintzetan, elkarri eraginez, sortzen den lidergo partekatu eta sozialari batetik; eragile kolektibo batek jardute hutsez bere jardun arloan sor dezakeen eraldaketari bestetik. Arestian esan dugun eran: lidergo berri bat osatzeko aukera lantzen ari gara, ez zuzendaritza-lidergo bat, baizik eta eragileen eta praktikaren testuingurua aldatuz eragiten duen lidergo lauso eta ez-zuzeneko. Hori dena, jakina, gure indarren neurrian. Horien argitara neurtu beharko da beti egin eta lortzen ari garena.

Eta korolario gisa: bide horretatik jarraitu behar du komunitateak, traktore ari direnen lan aitzindaria testuinguru lidergo bilakatuz, ahal duen neurrian, besteentzako, kide, lagun edo inguruko interesatua, testuinguruko lidergo funtzioa hedatzen eta azken finean, euskarazko komunikazio publikoa egiteko eredu normalduak, erosoak eta errazak eskaintzen. Uste dugu, horrenbestez, proiektuak potentzialtasun handia duela: jarraipena ziurtatuz gero, euskaraz jendaurrean erabiltzea bera ere eralda genetzake, ekarpen apala eta partziala eginez jakina.





**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien Hiribidea, 8  
20140 Andoain  
[www.soziolinguistika.eus](http://www.soziolinguistika.eus)

